

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko ekainaren 7a / 588. zenbakia



70eko hamarkada gurera ekarriko dute

Herriko musika taldeek 70eko hamarkadako
rocka eguneratuko dute gaztetxean

ORAIN ETA HEMEN: EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA/6 • KIROLA: MOTO-KROSA MOJATEGIN/11



Jarri lasai eta musikaz gozatu.

Musikaz blai, SOINUZ BLAI.

SOINUZ BLAI

- Eguenetan, 21:00etan
- Errepikapena egubakoitzean, 21:00etan
- Aurkezleak: **Maite Albes** eta **Ugutx Usandizaga**



KALEINKESTA/ Zela ikusten dozu euskerien egoerie Mondraguen?



PEDRO CASADO
Langillie




MARTA AGIRREURRETA
Iksasle



ITSASO LARRAÑAGA
Iksasle



AMAIA MARTIARTU
Langillie



RAMON GERENABARRENA
Langillie



AITOR AGIRREURRETA
Langillie

Ez neuke esango euskerie egoera txarrien daguenik. Hala eta be, kuadrilletan ez da euskeraz berba egitten. Neu baiño gaztiaguk euskeraz egitten daue; guk, barriz, ez horrenbeste.

Nik uste dot jentiek euskeraz egitten dauela berba, baiñe erderien eragiñe be haundixe da. Euskerie bultzaketie norberaren esku dago. Norbera kontzientziau biher da horretaz.

Gaztiak oso gutxi egitten daue euskeraz, geruago eta gutxiago, gaiñera. Badago betidanik euskeraz egin dauen jentie, baiñe gaztiak geruago eta gehixago egitten daue erderaz.

Euskerie egon biherko litzakiena baiño txarrago dago. Gauza asko egin leikez, baiñe goiko agintariek die behin betiko bultzadie emun biher dauenak. Prioridade kontue da.

Neuk nahiko ondo ikusten dot egoerie. Gazte jentiek euskeraz egitten dauela esango neuke. Industria asko egonda, kanpoko jente asko dago, baiñe kalien euskerie entzuten da.

Egin biherko litzakiena baiño euskera gutxiago egitten da hamen. Ikastolan ikasten dogu, baiñe kalien gehixenok erderaz egitten dogu. Kalien euskeraz egin biherko geunke.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ADIERAZPEN ASKATASUNA KOLOKAN Aspalditik, herriko elkarteek Monterron parkearen azpiko aldean pankartak jartzeko ohitura daukate. Azkenaldian, ordea, gauzez pankarta horiek moztuta eta apurtuta agertzen direla jakinarazi digute. Herriko hainbat lagun kexu agertu dira, eta adierazpen askatasunaren aurkako ekintzak direla salatu dute. /I.B.

ETABARRUAN...

DRAIN ETA HEMEN /7

Garaia ikerketa gunea

Garaia Berrikuntza Gunearen nondik norakoak aztertu ditugu. Iazko apiriletik, Trefasan dago.

KULTURA /15

Lurraren Taupada

Eguenean hasiko da Lurraren Taupada jaialdia. Perkusioa eta munduko erritmoak uztartuko ditu.

ZAHARRAK /18

Iksasle nagusiak ere badaude

Arrasateko Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroan berrogei erretiratu dabilta ikasten.

ASTEKODATUA

108

MILA EURO ZEHATZU DITUZTE JAIETARAKO

Arrasateko Udalak ehun eta zortzi mila euro pasatxoko aurrekontua adostu du aurtengo San Juan jaietan egingo diren ekintza guztiak ordaintzeko. Laster izango dugu horren berri.

BESTEKEKESANA

“

Mondragón Corporación Cooperativa Euskal Autonomi Erkidegoan dagoen negozio talde

handiena da eta Espainiako talde industrial handiena. Fagor edo Irizar bezalako ekoizpen kooperatibak, Eroski bezalako banaketa enpresa, Caja Laboraleko finantzak edo ikastolen zein Mondragón Unibertsitateko irakaspen nazionalistek osatuta, MCCk Euskal Herriaren independentzia lortu gura duen gizarte esparrua ordezkaten du. (...) MCCren enpresa-norabidea munduko negozio eskola famatuenean ikasi dute, baina hala ere, MCC estrategia nazionalistarekin zuzenki lotuta dago, bai EAJrekin eta baita ETArekin ere. (...) Aginte postu guztiak EAJko eta EAko pertsona ezagunek hartu dituzte”

JULIO VIDORRETA
‘LIBERTAD DIGITAL’/02-05-31

HERRITARRENBERBAK/ Eneko Barberena



Gazta

Behin batean, Oñatiko hainbat gizonak, Ugao ibaian ilargia islaturik ikusi zuten. Gazta handi bat zela usterik, zubitik zintzilikatu ziren batak besteak besteak luzatuz berau harra-patzeko. Kateko azkena gaztatik horren gertu zegoen, ze azkeneko tirakada batean guztiak arrastatu zituen. Ibaira erori ziren, urak nahasiz eta gazta galduz.

Kontu honetatik hainbat gauza ikasi litezke, batez ere egungo errealitateko arazoei dagokionez.

Bada Euskal Herrian jende multzo bat, zeina beti dagoen prest Madrilek dioena egiteko. Beraien esanei men egiten diete purrustadarik bota gabe, gobernuaren txisteei barre egiten diete...

Izan ere, gazta bat jokoan denean beste guztiak ez du xentimorik balio. Ez dutela Hobetuz-erako dirurik eman nahi? Berdin da. LOUa bezalako lege bat egiten dutela, estatutuak ematen dituen

eskumen urriak urratuz? Berdin da. Hiru egunetatik behin pertsona bat torturatua izaten dela komisaldegiren batean? Berdin da. Sakanako sokatira talde bati ez dietela euskaldun gisa lehiatzen uzten? Berdin da. Halako soinu halako dantza dio atsotitzak, eta kasu honetan egoera guzti hau horrekin oso erraz laburbildu daiteke.

Batzuk ordea ez lukete sekula ahaztu behar, beraiei ere oñatiarrei gertatu zitzaiena gertatzeko arriskua ere bada-goela. Are gehiago aurrekari historiko-

ak egonda eta egon badaude, bai horixe. Hau da, urak nahasi eta gaztak eskuen aurretik ihes egitean. Eta batipat Espainiako gobernuarekin jokatzeko denean, legea egiten duenak tranpa ere egiten duelako.

Tristea da nik esatea hau, baina badago gazta lortzerik zubian zintzilik funanbulisten gisara ibili beharrean. Gure gazta, guri dagokiguna eta gainera bortxaz kendu zigutena.

“Bada Euskal Herrian jende multzo bat zeina beti dagoen prest Madrilek dioena egiteko, purrustada egin barik”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereziabar
Iraxte Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 7**
Amezua, Santa Marina 32. 943 79 09 74
- ZAPATUA, 8**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- DOMEKA, 9**
Ruiz, Maala 31. 943 79 14 09
- ASTELEHENA, 10**
Español, Araba etorb. 17. 943 79 18 65
- MARTITZENA, 11**
Azkoaga, Ferrerías 1. 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 12**
Azkoaga, Iturriotz 33. 943 79 79 99
- EGUENA, 13**
Corcuera, Maisu Aranbarri 1. 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Iguatorialdea. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Delak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak. 943 03 53 11
• Ikuskatzailea. 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZAK**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. . . . 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. . . . 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

'EGUZKIAREN BILA'
Bihar, 18:30ean, Amaia Udal Antzokian, Txatxiartistek *Eguzkiaren bila* antzeztuko dute. Sarrera: euro bi.

NAGUSIEN DANBORRADA
Nagusien Danborradako entseguak astelehenetan eta eguaztenetan, 20:30ean, egiten dabilta San Viator Ikastolan. Interesatuok, badakizue nora jo eta noiz.

TORTURAREN AURKA
Bihar, 18:00etan, Bilbon torturaren aurka egingo den manifestaziorako autobusa antolatu dute. Izena eman, lehenbailehen, Irati tabernan.

70EKO HAMARKADAKO JAIA
Bihar, 17:30etik aurrera, 70eko hamarkadako jaia egingo dute gaztetxean. Hamabi musika talde izango dira eta zozketa ere egingo dute. 70eko hamarkadako arrokekin joan!

50EKO KINTOAK
Ekainaren 15ean, zapatuan, 50eko kintoek euren eguna ospatuko dute. Meza, txikiteoa eta Aldape jatetxean (Batzokian) bazkaria izango dute. Interesatuok ekainaren 12a aurretik Jose Oleari (943 79 11 15 edo 943 79 22 79) edo Jose Luis Arantzabali (943 79 13 51) deitu.

AEDren AGENDA

AED-REN AUZOLANDEGIAK
AEDk auzolandegiak antolatu gura ditu udan. Baionako AEK konpontzea dute helburu, eta lantaldea osatu gura dute hara joateko.

SENDABELARREN RALLIA
Ekainaren 16an, sendabelarren bilketa rallya egingo dute, AEDko kultura taldeak antolatuta.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Santa Barbarako lanak, atzeratuta


Udalak Santa Barbara urbanizatze lanak atzeratu egin behar izan zituen, parkean bertan antzinako gazteluaren aztarnak aurkitu zituztelako. Horrez gain, zalantzak argitu ondoren, parkearen beheko aldean umeen kulunkak jartzeko asmoa ere erakutsi zuten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Fritzixa"

Piztia, ustez arriskutsua den animalia. *-Patata-landara pillia dago sustarra janda. Eztakitt nik ze friztixa dabillen.*



GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Jabier Errarte eta Mila Arenaza ikasle

Arrasateko Helduen Heziketarako Zentroan (EPA) ikasten ari diren bi ikasle gonbidatu ditugu, eta biek ikasteko inoiz ez dela berandu irakatsi digute. Jabier Errarte eta Mila Arenazarekin izandako elkarrizketa entzungai izango da asteburuan, baita Josu Pereda arrasatearrarekin izan dugun solasaldia ere. Josu suhiltzaile lanetan ari da Zubillagan. Gainera, Asier Bilbao triatleta ezagutzeko aukera izango dugu, zapatuan Debagoieneko II. Triatloia izango dela aprobetxatuz.

Ume Hiperaktiboek Elkarteak

Arrasaten ADAI izeneko ume hiperaktiboek elkartea dago, eta han lanean ari da Mikel Olano psikologo klinikoa. Hiperaktibitatea gutxi ezagutzen den gaixotasuna da, baina ume zein gazteen %5ei eragiten die. Hiperaktiboek kontzentratze arazo handiak dituzte, eta gauzak pentsatu barik egiten dituzte. Astelehenean, 10:30ean, entzungai izango da. Martitzenean, merkatu txikiaren tartea izango da. Edozer erosi edo eskatzeko, deitu!

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 31	10 °C
MAXIMOA Egubakoitza, 31	32 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	14,1 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 29	16 °C	11 °C	0,3 l/m²
Eguena, 30	24 °C	11 °C	- l/m²
Egubakoitza, 31	32 °C	10 °C	0,4 l/m²
Zapatua, 1	30 °C	17 °C	- l/m²
Domeka, 2	30 °C	13 °C	1,2 l/m²
Astelehena, 3	16 °C	14 °C	- l/m²
Martitzena, 4	16 °C	14 °C	12,2 l/m²

Berarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena

ASTELEHENA
21:00 MIR

MARTITZENA
21:00 Hi bizi hadi

EGUAZTENA
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen

EGUENA
21:00 Gailurretik/Mikelenea

EGUBAKOITZA
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak

ZAPATUA
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea

ASTEABIHITZETAN

Santa Teresa eskolaren inaugurazioa

Joan den zapatuan inauguratu zuten Arizmendi Ikastolak Musakolan duen eraikina. Besteak beste, ikastolako kudeatzaileak, ikasleek, irakasleek eta gurasoek parte hartu zuten, baita Mikel Lezamiz Arizmendi Ikastolako presidentek eta Xabier Zubizarreta alkateak ere. Mikel Lezamizek ikastolak urte hauetan izan duen dinamismo handia azpimarratu zuen, eta eraikin berria egiten lagundu duten guztiei eskerrak eman zizkien.


Ekitaldia amaitu eta gero, LOKA kale-animazioarekin gozatu zuten guztiek.

Atxiloketa Arrasaten

Zapatu goizaldean, Ertzaintzak 17 urteko gazte bat atxilotu zuen Arrasaten, ustez zenbait autotan lapurretan egiteagatik. Bizilagunek egindako telefono deiei esker lortu zuten ertzainek ustezko lapurra harrapatzea. Maala kalean aparkatuta zeuden zenbait autotan ostu ei zuen gazteak.

Istripuak barra-barra

Eguaztena egun latz samarra izan zen inguruko errepideetan. Seguruenik eguraldi eskasak eraginda, lau istripu izan ziren goizean inguruan. Bata Arlaban mendatean izan zen. Ertzaintzak adierazitakoaren arabera, kamioi bik zama galdu zuten, bata bestetik oso distantzia gutxira. Ondorioz, noranzko bat itxi behar izan zuen Ertzaintzak eta auto ilara luzeak sortu ziren. Zorionez ez zen zauriturik izan. Bestalde, Arlabango istripua gertatu eta minutu gutxira, antzeko beste bat gertatu zen Kanpanzarren. Hor bi kamioik elkar jo zuten, eta ondorioz, zirkulazio arazoak sortu ziren. Istripu horretan ere ez zen zauriturik izan. Eta, Aretxabaletan eta Marulandan ere istripu bana izan ziren, baina bi horietan ere ez zen zauriturik izan.



San Juanetarako kartela

Antonio Murillo arrasatearrak egindako kartela aukeratu dute aurtengo San Juan jaiak iragartzeko. Lehiaketan aurkeztutako 18 lanen artean aukeratu zuten Murillorena. San Juan Sua eta udaletxea erakusten ditu kartelak, besteak beste. Argazkiekin egindako muntaia da.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Jon Abril

Uste dut aurreko baten ere orrialde honetan kasu hori gogora ekarri nuela, baina aproposa deritzot berriro gurera ekartzea. Jon Abrilen kasuaz ari naiz, dagoeneko oso ezaguna den Berako mutilaz. Aspaldi, ikasle garaian, ezagutu nuen mutil fin hori. Euskal Herria oso txikia da, eta are txikiagoa Jonen moduko pipermina izanda.

Duela bi urte inguru, Madrilgo Auzitegi Nazionalaren kanpoaldean (zer kasualitate!) Berako mutil baten atxilotzearen berria Ttipi Ttapa telebistarako lantzeko asmoz, Jonen atxilotuak zeramatzan autoa kamerarekin filmatu zuen. Hori izan zen guztia. Kamerarekin autoaren matrikula grabatu zuela eta, terrorismoari laguntza ematea leporatu

zioten. Adar-jotzea dirudien arren, fidantza itzela ordaindu behar izan zuen, eta are gehiago, ekainaren 11n, Madrilgo Auzitegi Nazionalean epaitu egingo dute. Bere lana egiteagatik, sei urteko kartzela eskatzen diote.

Euskal Herrian bidegabekeria asko, baina ez daukate eskubiderik. Edozein kazetariaren lana eta eskubideak zapaldu dituzte. Akusazioak ez dauka funtsik, baina Jon euskalduna da. Besarkada bat, Jontxito!

ASTEKO IRUDIA



IKER BARANDIARAN

AMA LURRAREN GAINEKO GOGOETA EGIN DUTE

Joan den eguaztenean, hilaren 5ean, Ingurumenaren Eguna izan zen, eta horrekin lotuta Arrasateko Udaleko Ingurumen Sailak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Horren barruan, Lurra elkarteak Monterron jauregian *Gure amaren etxea defendituko dugu* izeneko erakusketa jarri du. Erakusketa horretan

baserriak Euskal Herrian izan duen garrantzia, egun bizi duen egoera eta duen etorkizuna azaltzen dute. Horrez gain, ipar eta hegoaren arteko desberdintasunak, Aztarna Ekologikoa, naturarekin bat egin eta harekin dugun harremana, eta zuhaitzen izendapenak eta deskribapenak azaltzen dituzte. //B.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

LANDALUZE
HARATEGIA • URDATEGIA
Etxeko txorizo bereziak
ITURRIOTZ BALEA 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA/ Euskararen egoeraren hausnarketa egin dute eta Plan Estrategikoa diseinatu dute

“Arrasateko euskalgintza plan baten barruan batzen den lehenengo aldia da”

UBANE MADERA

Arrasateko euskalgintza egiten ari den Plan Estrategikoa berbegai izan dugu inoiz atal honetan. Orain, berriro ere hala izango da. Izan ere, dagoeneko amaitu dute lehenengo fasea: gero jorratuko duten Arrasateko Plan Estrategikoaren lehen fasea.

Azken baten, Plan Estrategikoaren barruan, “euskalgintzaren ustez, euskara berreskuratzeko eta euskalgintzak aurrera egin dezan zeintzuk diren etorkizunean egin beharrekoak zehaztu dira”. Halaxe adierazi digu Joseba Ezpeletak, Plan Estrategikoaren Jarraipen batzordeko kideak.

HELBURU NAGUSIA ETA BESTE LAU

Horren arabera, euskalgintzak Arrasaterako zehaztu duen helburu nagusia euskararen erabilera normalizatzea da. Hain zuzen ere, “elkarrekin Arrasateko esparru guztietan euskaraz normaltasunez bizi izateko aukera bideratzea eta lortzea”.

Hori lortzeko, besteak beste, lau helburu orokor finkatu dituzte: lehena, herriko euskalgintza bera gorpuztu eta artikulatu, sinergiak eta plan bateratua lortzeko; bigarrena, gizarteko arlo estrategikoak euskalduntzeko plana egitea (adibidez, irakaskuntzako helburu batzuk eta etorkinen gainekoak atal horretan sartuko dituzte); hirugarrena, euskararen ezagutza bermatu eta erabilera sustatu gura dute giza-banakoaengan eta gizartean, ahalik eta hizkuntza kalitate handienarekin (erabilera, ezagutza, irakaskuntza, arlo sozio-ekonomikoa, ume eta gazteen arloa eta komunikabideen arloa jorratuko dituzte hemen); eta, laugarrena, herritarrek euskararekiko pentsaera, jarrera eta jokaera baikorra eta aktiboa izatea lortu gura dute, prestigioa landuta eta kanpoko faktoreen aurrean neurriak hartuta.

ESANDAKOA BETETZEA

Behin hori guztia zehaztuta, Josebak esandako moduan, “lanak agintzen duena betetzea” dator.

Hain zuzen ere, plana gauzatu eta gero, herritarren aurrean aurkeztuko dute; eta gero hasiko dira planean zehaztutakoa betetzen. “Horretarako, epe jakin baten egin beharreko ekintzak zehaztuko dituzte. Ekintza bakoi-tza oso zehaztuta izango da, epeaz gain, adierazle batzuk, arduradun bat... izango ditu”.

ARRASATE, BERE KABUZ

Bai Euskarari egitasmoak bul-tzatuta ipini zuten abian Arrasaten egiten ari diren ekimena. Kontua da Kontseiluak Euska-



Udalako Ingurugiro Eskolan batu izan da Arrasateko euskalgintza Plan Estrategikoa lantzeko.

ARRASATE PRESS

Euskararen normalizazioa lortzeko lau helburu nagusi finkatu dituzte

raren Plan Estrategikoa herrietara bultzatzea proposatu zuela; Arrasatek proposamen hori onartu zuen (herri pilotu izateko, beste hamabi herrirekin batera), baina hasieratik esan zuen ez zela plan estandar horretan sartuko;

Hausnarketa egin ondoren erabaki zuten Kontseiluak emandakoa motz geratzen zela

“Arrasatek hausnarketa egin eta horren ondoren pentsatuko zuen zelako plana egin”.

Eta hausnarketa prozesua egin eta gero, erabaki zuten Kontseiluak emandako plana motz geratzen zela Arrasaterako.

Ekainaren 18an aurkeztuko dute plana, Amaia Udal Antzokian, 19:00etatik aurrera

Joseba Ezpeletak adierazi digunez, “Arrasatek euskalgintzaren plana egiteko beharra du, hortaz, landu dezagun euskalgintzaren plana, eta gero etorriko da etorri beharrekoa”. Gero, plana egiten hasi garenean, pla-

nak berak ekarri du prozesu bat. Eta prozesu horretan asko ikasi dugu eta asko ikusi dugu. Garbi duguna da gura genuen plana diseinatu dugula eta gauzak ezin direla geratu paperean. Helburuak eta eginbeharrak zehaztuta daude, eta orain, ekintzak burutzeko tokatzen da; irailtik aurrera izango da hori. Urte batetik bestera ekintzak berriro aztertu beharko dira, helburu zehatzak aldatuko dira eta, helburu handiak lortu ahala, beste batzuk ipiniko dira”. Bide berri bat egiten ari direla nabarmendu gura izan du: “Esperientzia berria izan da, inoiz ez da egin horrelakorik, gu ari gara bidea zabaltzen”.

HIRU URTERAKO

Hiru urterako plana zehaztu dute. Baina Josebak adierazi digun moduan, “helburuak oso orokor-rrak dira, eta horiek lortzea oso gaitza izango da. Euskalgintza osoa norabide berean lanean modu koordinatuan ipintzea lortuz gero, nahiko izango da; nahiz eta helburuak ez bete. Horrela egin ez gero, joango gara helburuak lortuz. Hiru urtera seguru ezetz, helburuak orokorrrak direlako, baina jardungo dugu”.

Kontuan izan behar dugu ez dela samurra inoiz mahai baten elkartu barik egonda bat-batean egun batetik bestera sekulako koordinazioa egotea. Esanguratsua da zeintzuk gauden hor eta zer lortu den. Lehenengo aldia izango da euskalgintza guztia batzen dela. Hamalau elkarte helburu bakarrarekin batu eta modu koordinatuan lan egiteko gertu gauden lehenengo aldia da, segururru. Eta hori da planaren berritasunetako bat: euskalgintzak modu koordinatuan lan egiteko gogoazaldu duela eta giro ona dagoela modu horretan lan egiteko”.

ASTE BI BARRU, AURKEZPENA


Gauzak horrela, orain artekoaren aurkezpena datorren ekainaren 18an egingo dute Amaia Udal Antzokian, 19:00etatik aurrera. Eta jakina, interesa duen edozein-nendako dago zabalik.

Arrasateko euskararen egoeraren erretratua

Arrasateko euskalgintzaren Plan Estrategikoaren barruan, euskarak herrian duen egoeraren diagnosa edo erretratua egitea izan da betebeharreko garrantzitsuenetakoa. Euskararen aukerak, indarguneak, mehatxuak eta ahulguneak aztertu eta gero, honako erretratu hau egin dute: Arrasaten gazte euskaldun asko dago, baina era berean, gazteek kalean gaztelaniara jotzen dute eta, gainera, askotan, erabiltzen duten euskararen

kalitatea eskasa da. Arrasatearrek atxikimendu handia dute euskalgintzako erakundeekiko eta euskararen prestigioa hazi egin da; euskalgintzan borondate eta militantziarako potentzialitate maila handia ere badago. Baina bestalde, euskalgintzako erakunde eta kide batzuen konpromiso eta inplikazio maila txikia da, euskalgintza ez da sektore eta gizarte esparru guztietara heltzen eta, esaterako, ez dago etorkinendako harrera

planik. Horrekin batera, kontuan hartu behar da erdaldun elebazarren kopurua handia dela eta globalizazioa geroago eta gehiago ari dela bihurtzen euskararendako mehatxu. Ezin dira dizkieten erasoak. Edozelan ere, irakaskuntzan euskarazko garapena gertatzen ari dela ere esan behar da, bai eta herriko merkataritza eta enpresa giroa euskalduntzeko esperientziak abian daudela ere.



Olandixoko maldan eraiki gura dutenaren irudi garbia dute Garaiaiko bultzatzaileek.

UBANE MADERA

TEKNOLOGIA/ Garaia Berrikuntza Gunea

Urte bukaeran Udalako maldan hasiko dira lanean

UBANE MADERA

Garaia Berrikuntza Gunea hasi da gorpuzten Arrasaten. Horren adibide da Trefasa lantegiaren eraikin zaharrak hartu duen itxura berria. Iaz, apirilean, zabaldu zituzten ateak. Eta, jakina, lanean burubelarri ari dira, ikerketan oinarritutako gunea sortzeko.

Garaiaiko eraikin berrian lanean dihardutenen artean Andoni Gartzia Urtaza oñatiarra dago, Garaiaiko zuzendari gerentea. Hark kontatu digunez, lauzpabost arlotan ibili da lanean orain arte: "Garaia eraikitzeko beharrezko lurren %60 erositu ditugu, jabeen adostasunarekin, gainera, desjabetu barik; hirigintza alde-tik proiektu guztia nola eratu, nola zuzendu eta nondik nola bideratu ikusten ibili naiz; enpre-

sekin harremanak ere izan ditut; eta jakina, Arrasateko Udalarekin eta Administrazioarekin harremanak ere izan ditut, proiektua bera hirigintza ikuspuntutik garatzeko".

Horrela, orain dela bi urte eta erdi hasitako proiektua aurten hasiko gara ikusten zela gauzatzen den. Andoni Gartzia esandakoaren arabera, "Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektuari behin betiko onarpena eman eta gero, urte bukaeran, Udalako maldan lurrak mugitzen hasiko direla espero dugu eta bi urte barru lehenengo azpiegiturak abian izango dira".

ZER DA GARAIA?

Aktibitate industrialik gabeko gunea izango da Garaia. Helburua da zortzi bat urtean 1.250 bat ikertzaile lanean aritzea.

Andoni Gartzia definizio bi

eman dizkigu Garaiairen gainean: filosofikoki, etorkizun erakargarri baten irudi konbentzigarria da, eta fisikoki, berrikuntzarako azpiegitura. Hiru hitzetan laburbilduta: *elkarrekintza berrikuntza gunean*". Haren esanetan, gaur egun Euskal Herrian dauden hiru parke teknologikoen osagarri izango da Garaia; Miñanoren, Miramonen eta Zamudioaren osagarri, hain zuzen ere.

UDALARAKO AURREIKUSPENAK

Udalan eraiki gura dutenaren irudi garbia dute Garaiaiko bultzatzaileek: besteak beste, eta ikerketa eta ikasketa gunearekin batera, etxebizitzak izango dira, ikasleendako egoitzarako lekua eta oinezkoendako bidea ere izango dira, guztia elkarrekin lotuta. Eta, horrek guztiak Olandixoko tunela erakarriko duela ere uste du Andoni Gartzia.

LABUR

Iñaki Mallagarai Kortazar fidantzapean aske utzi zuen Garzón epaileak

Euskadiko Kutxako Iñaki Mallagarai Kortazar langilea egubakoitzean utzi zuen aske Baltasar Garzón epaileak. Fidantzapean utzi zuen aske; izan ere, mallabiarrak hogeita hamar mila euro ordaindu behar izan ditu aske geratu eta hirurogeita hamabi ordu pasatu baino lehen.

Mallagaraik egun bi eman zituen poliziaren eskuetan; eguaztenean atxilotu zuten eta egubakoitzean epailearen aurretik pasatu zen. Fiskalak baldintza bako kartzelaratzea eskatu zuen.

Eraso sexistaren kontrako kanpaina antolatu du Arrasateko Emakume Sailak

Herriko jaiak datozela-eta, emakumeen kontrako erasoen aurkako kanpaina antolatzea erabaki du Arrasateko Udaleko Emakume Sailak. Helburu bi ditu kanpainak: batetik, gizartea emakumeen erasoen kontra sentsibilizatu gura dute; eta bestetik, "herri-tarrek (batez ere, gazteek) erasoen kontrako jarrera aktiboa har dezaten animatzea" gura dute.

Horrela, erasoen kontrako logotipo bat diseinatzea erabaki dute eta horrekin, jaietarako pegatinak eta kamisetak ateratzea. Helburua da ahalik eta herritar gehienengana iristea.



Euskadiko Kutxan lapurreta saiakera

Martitzen eguerdian, lapurreta saiakera izan zen Musakola auzoan Euskadiko Kutxak duen egoitzan. Ezezagun bat banketxera sartu ei zen burua estalita zeramala eta, Euskadiko Kutxako zuzendari Juanjo Pagaldaik jakinarazitakoaren arabera, armatuta zegoen, esku baten pistola bat zuen-eta. Edozelan ere, ustezko lapurra oso urduri jarri ei zen eta Euskadiko Kutxara sartu eta minutu eskasera ihesari eman zion. Ertzaintza berehala hasi zen lapurraren bila, baina artikulua hau idaztean, oraindik harrapatu barik zuten.

Bikain Akademia

Garibai, 6 - B ARRASATE
Tel.: 943 - 77 11 06
www.bikain.net

Udako ikastaro trinkoak:
Ekaina, Uztaila eta iraila

- Mekanografia
- Informatika
- Internet

Abuztuan, unibertsitaterako eskola partikularrak

Ordutegia: goizez eta arratsaldez

Presta ezazu datorren urteko ikasturtea uda honetan!
LH, DBH, LOGSE, BT

AEDk eragile bat kontratatu nahi du

Eskatzen da:
Euskara maila ona, ahoz eta idatziz.
Taldean lan egiteko gaitasuna.
Harremanetarako gaitasuna.

Eskaintzen da:
Egun osoko lan jarduna.
Lan baldintza duinak.

Interesatuok, bidali curriculumak AEDra ekainaren 14a baino lehen.

ELKARRIZKETA

PEPE REI/KAZETARIA

“Esan beharra dago narkotrafikatzaile nagusienak bankariak direla”

UBANE MADERA

Pepe Rei aski ezaguna da guztiondako. Liburu dezente idazteaz gain, gaur egun, *Kale Gorria* aldizkariko kazetaria da. Joan zen eguenean, gaztetxean izan zen, narkotrafikoaren gainean berba egiten. Baita gurekin ere.

Narkotrafikoaren gaineko bideo bat aurkezten ari zara...


Bai. Estatuan eta Euskal Herrian, dagoeneko ehun bat aurkezpen egin ditugu. Eta orain, bakartze ziegen gaineko beste bideo bat landu dugu; *Kale Gorriak* atera du. Errealizadore turkiar batek egindakoa da eta oilo-narrua sorrarazten du.

Narkotrafikoari dagokionez, oraingo egoera larriagoa da edo betiko modukoa?

Oso larria da betikoa delako. Baina, bereziki, aldatu ez dena da zeintzuk diren Euskal Herrian narkotrafikoan lan egiten dutenen babesleak. Babesle handiak dituzte: Salveko, Intxaurrendoko...kuarteleetan lan egiten duten agenteak. Astakeri bat dirudi, baina “Intxaurrendoko” bideoa ikusiz gero, argi geratzen da, izan ere, Intxaurrendokoei ordaintzen zienetarikoz batzuk berba egiten dute bideoan. Adibidez, orain gutxi, Donostian zaindari baten heriotza izan zen eta azkenean ikusi da kontrabandista zela. *Kale Gorriaren* oraingo zenbakian dator.

Ez zuten, bada, hori esan...

Gertatzen dena da horrelakoetan beste errealitate bat kontatzen dutela, askotan ez dutela-



IKER BARANDIARAN

ko egia kontatzerik gura, sistemarengandik gertu dauden medioak dira edo Guardia Zibilarekin ados daudenak...

Arazoak badu irtenbidea?

Euskal Herria independenten denean; orduan ez da izango-eta Guardia Zibilik ezta Polizia Espainolik ere. Baina, arriskua badago. Izan ere, polizia politikoak

(ideia politikoengatik jendearen kontra egiten dutenak) inpunitate plusa izaten dute. Eta esan beharra dago, narkotrafikatzaile nagusienak bankariak direla. BBVAn, adibidez, milaka milioi zuritu dute, diru hori diru zikina da, eta diru zikin gehiena narkotrafikotik dator. Gai horrekin lotutako inputazioak ere badira.

Osoko bilkura luzea eta istilutsua izan zen joan den astean Arrasaten

Osoko bilkura luzea eta istilutsua izan zen joan den astekoa. Hasi aurretik, hamaika mozio zituzten lantzeko, eta beste bat ere gehitu zuten. Tartean, Eudelen adierazpen zibikoa landu zuten, eta horrek ikusmira handia piztu zuen. Horrela, komunikabide ugari azaldu ziren bilkurara. Baita, ikusle asko ere. Bestalde, PPko zinegotzia ez zen etorri.

Mozioak ez ziren gaien artean, Kultura Etxea egiteko proiektua adjudikatzea onartu zuten. Amenabar enpresari adjudikatu diote hiru milioi euro pasatxoko aurrekontuarekin. Garagartza inguruan egingo duten biribilarren proiektua ere onartu zuten.

MOZIOAK

Eta, mozioei dagokionez, berriz, EAJk Banco Guipuzcoanori egindako eraso gaitzesteko mozioa aurkeztu zuen eta Batasunaren kontrako botoekin onartu zuen udalbatzarrak. Gauza bera gertatu zen Eudelen adierazpen zibikoarekin. Batasunak mozio horren alternatibo bat aurkeztu zuen, alkatearen hitzetan Eudellekoak “ez dituelako kontuan hartzen euskal gatazkaren izatea eta zergatiak”. Ondorioz, Eudelenaren kontra bozkatu zuten. Edozelan ere, gainerako talde politikoan onespina jaso zuen Eudelen dokumentuak, hortaz, onartu egin zuten. Batasunaren ilegali-

zazioa salatzen zuen EAK aurkeztutako beste mozio bat ere onartu zuten; baita torturaren aurkako beste bat ere. Azken mozio hori eztabaidatzen ari zirela, PSE-EE alderdiko zinegotziak joan egin ziren. Horren harira, esan beharra dago, bilkuran, alderdi sozialistako ordezkariaren batek berba egiten zuen bakoitzean, zenbait ikuslek beraren eta alderdiaren kontrako oihuak egin zituztela; horrek tentsio uneak eragin zituen aretoan. Bukatzeko, greba orokorraren alde EBk aurkeztutako mozioa onartu zuten EAK, EAJk, eta EBk eta baita, Idahoko aldarrikapenarekin bat egiteko eskaera ere.

LABUR

Joseba Garitaonaindia preso arrasatearra aske utzi zuten atzo, eguena

Lau urte eta erdiz kartzelan egon eta gero, atzo, eguena, aske utzi behar zuten Joseba Garitaonaindia. Arrasatearra Mexikon izan da errefuxiatuta, eta 1997ko azaroan Espainiako polizia entregatu zion Mexikok. Espainiara eraman bezain laster atxilotu egin zuten ETari lagundu izatea leporatuta. Eta, orduetik, Carabanchelgo, Aranjuezko, Navalcarnero eta Langraitzeko kartzelatan egon da preso. Epaileak ezarritako zigorraren arabera, orain dela bi urte kalean egon behar zuen, ordurako beteta zituen-eta zigorraren hiru laurdenak.

Ettxerat elkarteak ongietorria prestatu zion Garitaonaindiari. Atzo, 19:00etan Gatzagatik Arrasatera auto karabanan etortzeko ziren, eta 19:30 ongi etorria egin behar zioten. Edozelan ere, albiste hau idaztean, oraindik esandako guztia egin barik zegoen, hortaz, ez dakigu zertan geratu den.

Ikastolaren Eguna ospatuko du Arizmendi Ikastolak bihar, zapatua, Arrasaten

Goizeko hamarrak eta erdietan hasi eta eguerdira arteko jai antolatuko du Arizmendi Ikastolak biharko. Etxafuegoak jaurti eta gero, lehen hezkuntzako laugarren eta bosgarren mailako ikasleendako herri jolasak eta kirolak antolatu dituzte: txingak, sokatira, oskol batzea eta kirol alternatiboak. 11:00etatik aurrera, berriz, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako lehenengo, bigarren eta hirugarren mailakoendako jolasak izango dira (puzgarriak, txokoak, lantegiak...) eta LHko seigarren mailakoendako eta DBHko ikasleendako kart motako auto txikiak. 11:30etik aurrera Gastronomía Feriaren txanda izango da, eta Andaluziako Extremadurako, Galiziako eta Euskal Herriko jakiak probatzeko aukera izango da. Eta, bukatzeko, Goloka Zirkoaren ikuskizuna izango da 12:00etan.

Horrez guztiaz gain, jaialdia esparruan zenbait txosnak ipiniko dituzte; Kilometroak 2002-rena, Nafarroa Oinez-ena, Bidezko Merkataritzarena eta Arizmendiko hiru taldek txosna bana ipiniko dute.



Odola ematera joateko eskaera

Arabako Bankuko Odol Emaileen Elkarteak odola behar dela iragarri du. Arduradunak, Isabel Viloriak, adierazi digunez, ebakuntzak, transfusioak eta bestelakoak ugaldtu egin dira garai honetan eta horregatik behar da odola. Egundezentetan izango dira, gainera, Arrasaten. Datorren astean, martitzenetik eguenera arte izango dira ambulatorioan, 16:15etik 20:00ak arte. Martitzenean eta eguaztenean (hilak 18-19), berriro etorriko dira, baita uztailearen 2an eta 3an ere. Beharra dagoela-eta, elkartasuna erakusteko eta odola emateko eskatu du Isabel Viloriak.



KONTXI SAN MIGUELENDAKO IBAI ARTEKO SARIA

Ibai Artek joan den egubakoitzean zozketatu zituen 600 euro, eta Kontxi San Miguelendako izan da saria. Kontxik Aldape jatetxean egiten du lan, alabekin batera, eta saria alabei eman die, ilobendako gauzak eros ditzaten. 600 euro horiek Ibai Arte osatzen duten dendetan gastatu beharko dute. Haurtxoa dendan eman zioten txartela, eta irabazle suertatu. Horrelako amandrea izanda, gustura egongo dira ilobak!



MUSAKOLAKO GAZTEAK BISITAN

Joan den eguenean, Musakolako Herri Eskolako ikasleak izan ziren gurean bisitan. Ikasturtean komunikazioa landu dute eskolan, baina askotan eskolan lantzea ez da nahiko izaten. Eskolan ikasitakoa bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten

ARRASATE PRESSen hamaika urteko gazte horiek. Guztira, hamasei gaztetxo etorri ziren, Jon Armentia irakasleak lagunduta. Ikasgai horretaz gehiago jakingo dutelakoen gaude, azken baten, komunikabide bat zelakoa den ikusi ahal izan zuten-eta.



KONTXI MARTÍNEZI OMENALDI BEROA

Urte askoan Txanpi jabetzeko sukaldari izan den Kontxi Martínezi ere erretiratzeko ordua iritsi zaio, eta Erro enpresak pilota jaialdia antolatu zuen joan den egubakoitzean omenaldirako. Lehenengo partiduan *Txikito de Beneras* eta *Txikito de Legazpi* ibili ziren nor baino nor, eta *Txikito de Legazpi* nagusitu zen, 22-11. Bigarren partiduan *Curasaok* eta *Txispasek* neurtu zituzten indarrak, eta *Curasao* nagusitu zen, 22-9. Bi partiduetan denetik izan zen, antzerki apur bat, polemika, tanto ikusgarriak eta publikoaren txalo zaparradak. Partiduen ostean, afari ederra egin zuten Uarkapeko jatetxean.



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 - 79 78 14
ARRASATE

Banatzailleak behar dira Arrasate Presserako

Izena eman 943 71 23 91 telefono zenbakira.

BALDINTZAK:

- 15 urte baino gehiago edukitzea.
- Euskaraz jakitea.



GARAGARDO JAIAN, GIRO ONA ETA GARAGARDO HOBEA

Joan den asteburuan, errugbiarekin batera, garagardoa izan zen nagusi Arrasaten; izan ere, Garagardoaren IV. Jaia ospatu zuten. Herriko plazan egon zen karpak egubakoitz arratsaldean ireki zituen ateak, eta egubakoitzean bertan, jende asko animatu zen karpan afaldu eta trago bat hartzera. Eta zapatu gauean ere, aurreko egunean moduan, sekulako giroa izan zen. Errugbi Txapelketako sariak banatu zituzten eta karpa lepo bete izan zen. Datorren urtean, gehiago.

SAN JUANETAKO KARROZA, GERTU

San Juan jaiak geroago eta gertuago daude, eta Crisanto Margusino buru-belarri dabil Umeen Danborradarako karroza egiten. Aurten, Crisantok ideia bitxia izan du; izan ere, Arrasateko plazan antzina egon zen kioskoa irudikatu du danborradarako. Sei hilabete inguru daramatza karroza egiten. Hiru metro eta erdi zabal izango da eta lau metro eta erdi luze. Margusinok ez zuen ezagutu kiosko zaharra, eta argazki batetan oinarritu da beru egiteko. Edozelan ere karroza ikusgarria izango da.



INOIZ BAINO APUSTULARI GEHIAGO

Monte tabernak aurten ere Giroko Porra antolatu du, eta eguaztenean egin zuten sari banaketa. *B.K.* izeneko taldea izan da aurtengo irabazlea, eta 3.900 euro eskuratu ditu. Bigarrena *Kafetegi* izan da, eta 2.440 euro eskuratu ditu. Hirugarrenak, 1.218 euro irabazi dituenak, *Atxianpon* izenarekin egin zuen apustua. Aurten, inoiz baino parte hartzaile gehiago izan dira Giroko Porran, 322, guztira. Eta sariak ere tamainakoak izan dira.

ELKARRIZKETA

JESUS MARI BARRENA 'KETXUMA'/MENDIZALEA

"Nanga Parbateko tontorretik gauza asko ikusi gura ditut, K2, adibidez"

ARRASATE IRRATIA

Arrasateko mendizale hori joan den domekan abiatu zen Pakistan aldera. Izenez Jose Mari Barrena, baina *Ketxuma* ezizenarekin ezagutzen du jendeak. Nanga Parbat 8.125 metro garai den mendia igotzeko asmoz abiatu da. Munduko zorte onena opa diogu.

Zer sartzen da mendiko motxila baten?

Mendiko motxila baten gauza asko sar daitezke: pioleta, krampoiak, zaku bat, arnesa, sokak... gauza asko.

Eta zer ezin daiteke ahaztu sekula?

Eskularruak; eskularruak etxean utziz gero, ez dago ezer egiterik.

Azal ezazu bidaia zelakoa izango den.

Lehenik eta behin, Bilbotik Londresera joango gara, eta gero, Londrestik Islamabadera. Islamabaden hainbat egun egingo ditugu, agiri guztiak egiten eta baimenak eskatzen.

Lehenengo zortzi milakoa izanda, urduri?

Bai, apur bat bai. Gehienbat, bidaia hasteko gogoarekin. Lehenengo zortzi milakoa da guztiondako, baina ez dut uste esperientzia txikia daukagunik. Zazpi milako mendiak egin dituen jendea dago, eta asko ibili izan gara mendian. Talde ona joango gara.

Zenbat lagun bidaian?


Sei lagun joango gara. Gipuzkoako hiru lagun eta Arabako beste hiru lagun. Arabako hirurak gasteiztarrak dira. Gipuzkoarrak, berriz, elgoibartar bat, azkoitiar bat eta ni, arrasatearra.

Zer-nolako mendia da Nanga Parbat?

Ez da zortzi milako gaitzena, baina ezta errazena ere. Guk bide normaletik igoko dugu, baina esaten dutenez, bide normala ere ez da oso bide erraza. Zailtasun handiena lehenengo kanpamentutik bigarren kanpamenturako bidean dago. Zati horretako azken ehun metroetan zailtasun handiko horma bat dago, eta izoztuta egoten da.

Pakistan eta India artean dagoen mendia da Nanga Parbat. Lurralde horien artean ez da giro, ala?

Pakistanen eta Indiaren arte-



IKER BARANDIARAN

"Nanga Parbat ez da zortzi milako gaitzena, baina ezta errazena ere. Bide normaletik goaz"

an beti egon izan dira istiluak, eta azkenaldian, gauzak nahikotxo berotu dira. Hala ere, ez dut uste istilu berezirik izango denik gu izango garen bi hilabeteetan. Hala espero dugu, behintzat.

42.000 euroko aurrekontua daukazu bidaia horretarako. Zelan lortu duzue diru hori?

Egia esan, diru asko gure poltikotik jarri dugu. Horrez gain,

"Ez dut uste horrelako beste bat egingo dudanik. Diru asko eta denbora behar dira"

kamisetak, urdaiazpikoak eta txorizoak ere saldu ditugu. Bitxikeria gisa, Pakistanera joateko, txerrikirik jaten ez duten lekura joateko, txerrikiak saldu ditugu. Apur bat kurioso bada.

Tontorretik hurrengo helburua ikusiko duzu?

Ez dut uste. Oso garestia da, eta lan handia eskatzen du horrelako bidaia bat antolatzeak.

XAKEA

Arrasate Hiria Xake Txapelketako azken jardunaldia jokatu da gaur, egubakoitza

Arrasate Hiria Xake Txapelketa gaur arratsaldean bukatuko da. Aurtengo aldia joan den urtekoa baino parekatuagoa izan da, eta oraindik ez dago batere argi nor izango den irabazlea.

Aukera gehien Cristobal Limeresek du. Gernikarrak gaur irabaziko balu, txapelketa eskuratuko luke. Cristobalen aurkaria Gerardo Fernández izango da; Gerardok atzeratutako partida bat jokatu behar du, eta hori irabaziz gero, Limeresen kontrako partidua hil edo bizikoa izan daiteke. Borja Zamarbide gazteak ere badu aukeraren bat edo beste; bere partida irabazi eta aurrekoek berdindu egiten badute, gazte horrendako izango da txapelketa.

AUKEA SARIAK

Aurtengo AUKEA sariak zapatuan emango dituzte, Triatloia jokatu dela aprobetxatuta

Aurtengo AUKEA sariak aspaldi erabaki zituzten, baina Kirol Era-kundea ekitaldi berezi baten zain zegoen sariak banatzeko.

Bihar, zapatua, Debagoieneko Triatloia jokatu da eta AUKEA elkarteak ekitaldi hori aprobetxatuko du aurtengo sariak emateko. Sarituak Jonathan Pérez, Jesus Moreno eta Triatloi Taldea izan dira, eta sari banaketa 19:00etan izango da, Laubide plazan. Triatloia helmuga ere Laubiden egongo da; hortaz, jende asko izango da inguruetan. Zapatuan, horrenbestez, giro bikaina izango da Laubide plazan; alde batetik, atleta mordoa izango delako, eta, bestetik, AUKEA sariak banatuko dituztelako.

FOTOKIROLA



Domekan, moto-krosa izango da Mojategin

Oraingo domekan, moto-krosa izango da ikusgai Mojategiko zelaian. Domekako proba Euskadiko Txapelketako laugarrena izango da. Guztira, 50 lasterkari izango dira alebin, junior eta senior mailetan banatuta. Bi zilindrada izango dira, 125 eta 250 zentimetro kubikokoak. Entrenamenduak arratsaldeko hiruretan hasiko dira, eta lasterketak arratsaldeko azken orduan amaituko dira. Lasterketak ikusteko, gazteek hiru euro ordaindu beharko dituzte eta nagusiek, berriz, bost. /X.U.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumspport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

TRIATLOIA

Berrehun atleta inguru izango dira zapatuan Debagoieneko Triatloian

Irteera Urkulun izango da arratsaldeko lauretan eta helmuga Laubide plazan

XABIER URZELAI

Oraingo zapatuan, Debagoieneko II. Triatloia jokatu da. Aurten joan den urtean baino atleta gehiago egongo direla espero dute antolatzaileek, berrehun atleta inguru. Triatloia Urkulun hasiko da, eta igeri egin eta gero, bizikleta hartuko dute. Proba amaitzeko, korrika egin beharko dute.

Aurtengo triatloian antolatzaileek erabaki dute zirkuitua apur bat moldatzea. Triatloia Urkulun hasiko da, eta 1.500 metro igeri egin beharko dituzte. Urkuluko ura 18 gradu baino hotzago bada, neoprenozko trajeak derrigorrezkoak izango dira. Uretatik irten bezain laster, triatloiariek bizikletak hartuko dituzte. Urkulutik Arrasatera jaitsi, eta Kanpazarrerako bidea hartuko dute Epeletik gora. Sara jatetxearen parean berriro ere Arrasaterako bidea hartuko dute, baina jaitsiera bide zaharretik egingo dute. Arrasatetik Aramaiora joango dira, handik Azkoagara, eta Azkoagatik Untzillara. Untzillatik tria-



Neoprenozko trajea eta bizikletan ibiltzeko kaskoa derrigorrezkoak izango dira.

tletak Aretxabaletara jaitsiko dira, eta Aretxabaletatik Arrasatera. Arrasaten bizikletak alde batera utzi eta azken hamar kilometroak korrika egingo dituzte.

ZIRKUITU ALDAKETA

Zirkuituaren aldaketa handienak korrika egingo dituzten

hamar kilometroetan izango dira. Aurten, herritarren berotasuna bilatu guran, hamar kilometroak herri barruan egingo dituzte, herriaren kanpoaldera joan beharrean. Ez da erabaki txarra, proba askoz ere ikusgarriagoa izango da-eta. Errepideak mozteko, ordea, zailtasunak izango dira.

ERRUGBIA

Arrasate hirugarren geratu zen Nazioarteko Zazpinako Txapelketan

Iparraldeko taldeek nagusitasuna erakutsi zuten zapatuan Atxabalpen

X.U.

Arrasateko taldeak lan polita egin du aurtengo Nazioarteko Zazpinako Errugbi Txapelketan. Etxeko taldea hirugarren geratu zen, Iparraldeko Xou-Xou eta Buc taldeen atzetik. Finalean iparraldeko talde bi horiek neurtu zituzten indarrak, eta Bordeleko Xou-Xou taldea nagusitu zen.

Arrasateko Errugbi Taldearen dako asteburu biribila izan da alderdi guztietan. Batetik, Zazpinako Txapelketan herriko taldeak sekulako maila erakutsi zuen. Bestetik, Garagardoaren Jaia arrakastatsua izan zen, egubakoitzean eta zapatuan jende asko hurbildu zen-eta herriko plazako karpas. Azken baten, errugbia eta garagardoa bateragarriak izan daitezkeela argi gera-

tu zen joan den asteburuan.

IPARRALDEKO TALDEAK NAGUSI

Zapatu arratsaldean, beroa izan zen nagusi, eta jokalariek gura baino gehiago sufritu zuten. Txapelketan bost taldeko multzo bi izan ziren. Arrasateko taldeak lau partidutatik hiru irabazi zituen, eta Xou-Xou taldearen kontra entsegu bateko aldeagatik galdu zuten Patxi Gorosabelen mutilek. Xou-Xou lehenengo multzoko talde onena izan zen, eta Buc taldea izan zen bigarren multzoko talde onena. Finala iparraldeko talde bi horiek jokatu zuten, eta Bordeleko Xou Xou taldea nagusitu zen. Arrasate Eibarren kontra jokatu zuen hirugarren eta laugarren postuagatik.

Ordurako nekea zen nagusi, baina Arrasateko mutilek Eibar mendean hartu eta txapelketako hirugarren postua eskuratu zuten. Arrasatearrek ahalik eta lan txukunena egiteko asmoz irten ziren zelaira, eta hirugarren postua oso ona da, kontuan izanda Iparraldeko taldeek hemengo errugbi taldeek baino askoz maila hobea daukatela. Hirugarren postuarekin denboraldia ezin hobeto amaitu du etxeko taldeak.



SEBAS GOROSABEL

Zapatu arratsaldean, beroa izan zen nagusi, eta jokalariek ederto sufritu zuten.

MOTORRAK

Ander Landaluze nagusi beterranoen mailako Euskadiko Enduro Txapelketan

Joan den asteburuan Elgoibarren jokatu zen Enduro Txapelketan arrasatearrak izan ziren nagusi beterranoen mailan. Lehena Ander Landaluze izan zen, bigarrena Javier Arregi eta hirugarrena Eduardo Galdos, hirurak ere arrasatearrak.

Ander Landaluzek irabazi ditu Euskadiko Enduro Txapelketan orain arte jokatu diren lau probak. Guztira, zortzi proba dira, eta une honetan arrasatearra lehena da sailkapenean.

USO TIROKETA TXAPELKETA

San Juanetako Uso Tiroketa Txapelketa izango da zapatuan San Kristobalen

Kanposantu ondoan dagoen zelaian jokatu dute zapatuan San Juanetako Uso Tiroketa Txapelketa. Txapelketa goizez eta arratsaldean izango da. Lehenengo sei sailkatuek sariak izango dituzte, eta guztira, 1.195 euro inguru izango da saritan. Txapelketan, trofeoaz gain, 350 euro eskuratu ditu. Txapelketan parte hartzeko derrigorrezkoa izango da federatuta egotea. Leintz elkarteeko bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, 36.

Koadrila Arteko Pilota Txapelketa

A Taldea			B Taldea		
	jok.	punt.		jok.	punt.
Xabi - Egoitz	6	11	Txori - Kajita	6	12
Gaizka - Ugutz	6	11	Eimon - Iker	6	10
Toribio - Pi	6	11	Ander - Mikel	6	9
Oscar - Igor	6	9	Aritz - Aitor	--	--
Gaizka - Iraultza	6	8	Ion - Igor	--	--
Pin - Bode	6	7	Pitu - Muxi	--	--
Xabi - Gufi	6	--	Oxel - Kuki	--	--

D Taldea			E Taldea		
	jok.	punt.		jok.	punt.
Bolu - Egoitz	7	13	Iñigo - Isturiz	6	12
Kepa - Goiko	7	12	Iker - Iker	6	11
Txetxi - Albes	7	11	Ander - Ibai	6	10
Iraultza - Aitziber	7	11	Txopo - Frantxis	6	9
Xabier - Oscar	7	7	Jon - Andoni	6	8
Edu - Igor	--	--	Lur - Skritx	--	--
Zubi - Pon	--	--	Tximu - Zaka	--	--
Mikel - Unai	--	--			



Hurrengo partiduak: Final-laurdenak

Ekainak 8, zapatua (Musakolako kiroldegian)

Xabi - Egoitz vs Kepa - Goiko	10:00	Frontoi txikian
Eimon - Iker vs Iñigo - Isturiz	11:00	Frontoi txikian
Gaizka - Ugutz vs Bolu - Egoitz	12:00	Frontoi txikian
Txori - Kajita vs Iker - Iker	13:30	Frontoi txikian

BIKOTE BATZUEK, GANORARIK EZ

HAINBAT BIKOTE KALERATUTA, PARTIDU GUZTIAK EZ JOKATZEAGATIK

Txapelketako lehenengo fasea amaitu da dagoeneko, eta multzo bakoitzeko lehenengo bikote biek jokatu dituzte final-laurdenak. Gainerako bikoteek ezin izango dute aurrera egin, baina bikote asko alde zuzenetik kaleratu egin dituzte, ez dituzte-eta partidu guztiak jokatu. Antolakuntzakoek argi eta garbi adierazi zuten, joan den asteburuan, atzeratutako partidu guztiak asteburuan jokatu beharko zirela, astelehenerako emaitza guztiak mahaian gainean egon behar zirela-eta. Guztiak ez dira jokatu, eta aurtengo ere bikote batzuek ez dute ganorarik erakutsi. Final-laurdenetako partiduak Musakolan jokatu dituzte, baina hurrengo partiduak Uarkapen izango dira.

ZALDIBARKO FUTBITO TXAPELKETA


Arrasateko You Know taldea da aurtengo Zaldibarko Txapelketako txapelduna

Finalean Aramaioko Rayo Aldeanoren kontra jokatu zuten eta mondragoetarrek urrezko golari esker eskuratu zuten txapelketa



XABIER URZELAI

la partidu osoan markagailuan atzetik joan ondoren, azkeneko minutuetan egindako lanagatik eskuratu zuen You Know taldeak Zaldibarko Txapelketa.



Amaitu da, ondo amaitu ere

Aurtengo Zaldibar Txapelketa, beste Liga eta Kopa txapelketekin batera, amaitu da dagoeneko, eta ondo amaitu, gainera. Ondo amaitu da, finalera jende asko hurbildu zelako, eta partidu biak ikusgarriak izan zirelako. Ondo amaitu da, antolatzaileak nahiko ondo ibili direlako, eta finalera, iritsi behar zirenak iritsi zirelako. Ondo amaitu da, finalean epaileek neurria eman zutelako eta jokalariek garbi jokatu zutelako.

Ondo amaitu ez zuen bakarria argazkilaria izan zen, baina horrelakoak ere gertatzen dira. Rayo Aldeano lehenengo fasean ez zen oso fin ibili, baina lehenengo fasea gaudituz eta gero, Aramaioko taldeak txapeldun ohia zergatik den argi eta garbi erakutsi du. Aurten ere txapeldunak izango zirela pentsatu zuten finala ikusi zuten askok, baina azkeneko minutuak soberan izan ziren aramaioarrendako. Txapeldunari, You Know taldeari, inork ez dio ezer oparitu, eta lortutakoa kantxan egin duten lanaren ordaina izan da. Joko ona, azkarra eta ikusgarria, horrelaxe labur daiteke Erguin auzoko taldearen jokoak. Hirugarren eta laugarren postuan geratu diren taldeek ere txalo zaparrada beroa merezi dute. Hirugarrena izan edo laugarrena izan ez dagoela alde handirik esango lukete askok, baina talde bi horiek ederki borrokatu zuten hirugarren postuagatik. Azkenean, Dribling nagusitu zen, 5-3, baina Koka Juniorekoek argi eta garbi erakutsi zuten horraino iristea ez dela inondik ere kasualitatea izan.

Azken baten, zorionak lau talde horiei, baita gainerako guztiei ere, finalera iritsi ez badira ere, bidean, gogoan izateko partidu asko geratu dira-eta. Eta zorionak baino gehiago eskerrak merezi dituztenak antolakuntzakoak dira. Batzuetan ondo eta beste batzuetan ez hain ondo, baina astebururo hortxe izan dira bestean gozamenerako lanean. Dagoeneko badakigu datorren urtean ere Zaldibarko Txapelketa izango dela, baita antolakuntzakoak zorrotzagoak izango direla ere. / X.U.

70EKO HAMARKADAKO JAIALDIA

70eko hamarkadako rockaren jai handia egingo dute bihar gaztetxean

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, oso jai bitxia egingo dute gaztetxean. Herriko lau gaztek 70eko hamarkadako rockaren gaineko jai antolatuta dute. Herriko hamar taldek eta kanpoko beste bik iraganeko abestien bertsioak joko dituzte.

Arrasaten, eta zehatzago esanda, Arrasateko gaztetxean eta taberna batzuetan askotan egin izan dituzte ska, heavy, reggae eta beste estilo batzuetako jaialdiak. Hori ikusita, Arrasateko gazte batzuei 70eko hamarkadako rockaren gaineko jaialdi bat egitea bururatu zitzaion. "Baina ez edonolako; fundamentuzko zerbaite antolatu gura genuen". Horrela laburbildu dute hasierako asmoa. Izan ere, estilo horretako musika jartzearekin konformatu beharrean, kontzertu berezi bat antolatzearabaki zuten.

Orain dela sei bat hilabete, Ibai, Igortz, Brian eta Zuhaitz ideia horrekin bueltaka hasi ziren eta poliki-poliki ideia horri forma ematen hasi ziren. Lehenengo egin zuten gauza asmo hori herriko musika taldeei jakinaraztea izan zen. Musika taldeek ideia oso ondo hartu zuten; eta are gehiago, beste musikari batzuek ere jaialdi horretarako talde berriak sortzea erabaki zuten.

Antolatzaileek hasieratik ikusi zuten jaialdian talde asko batuko zirela, eta gauzak erraztearren, talde guztiendako soinu ekipa eta anplifikadore berberak alokatu dituzte. Horrek guztiak kostu handia dauka, eta, guztia ordaintzeko asmotan, zozketa txartelak atera zituzten. Zozketa horren saria binilozko disko sorta bat izango da; bihar bertan zozketatuko dute. Hala ere, txartelakin ez dute diru guztia lortu eta, horregatik, sarrera *sinbolikoa* jarri diote jaialdiari: hiru euro.

HAMABI MUSIKA TALDE ZUZENEAN

Gauzak horrela, arratsaldeko bostetik aurrera, hamabi musika talde batuko dira Arrasateko gaztetxean: Arrasateko Versus, Anger, Fase Terminal, Peter & the Dirty Brothers, Des-Kontrol, Arkada Social, The Remembers, Honkitons, Eskizofrenia Rock eta The Jukebox; Bermeoko Howlin Chihuahua; eta Donostiako Los Putos Amos.

Jaialdiaren izenak 70eko hamarkada du oinarri, baina musika taldeek 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetako kantuen bertsioak joko dituzte (Eddie Cochran, Ramones, AC-DC, New York Dolls, MC5, Stooges, David Bowie, Kiss eta beste askorenak). Hortaz, 1979. urtetik aurrera egin dituzten abestiek ez dute balio, eta jakina, jaialdi osoan ezin izango da kanturik errepikatu. Hori ez gertatzeko, antolatzaileek talde



Goian, The Jukebox taldea eta behean, Arkada Social.

Hamabi musika taldek 50, 60 eta 70ko hamarkadetako taldeen bertsioak joko dituzte

Binilo disko sorta zozkatuko dute eta 70ko hamarkadako trazan jantzita joatea eskatu dute

bakoitzaren abesti zerrendak eskuratu dituzte.

Jaialdia 17:30ean hasiko da, eta talde bakoitzak ordu erdi inguruko emanaldia egingo du. Horrez gainera, saio bakoitzaren artean hamar minutuko atsedena izango da. Afaldu, berriz, 20:30etik 22:00etara egingo dute. Los Putos Amos taldearen emanaldia salbuespena izango da, denbora luzeagoan ariko dira eta taula gainean. Los Putos Amos Donostiakoak dira eta Nuevo Catecismo Católico, Señor No eta Teen Dogs taldeen partaideak osatzen dute. Stooges, MC5 eta bestelako taldeen kantuak jotzeaz gainera, 90eko hamarkadako La Perrera taldea ere omenduko dute.

Jaialdiaren arduradunek hura antolatzeko zoratzen ibili direla onartu digute. Eta jendeak erantzuten ez badu, galerak izango dituztela jakinarazi dute.

Hala ere, gaztetxeko batzarrak eta herriko zenbait taberna eskaini dieten laguntza eskertu gura izan dute. Horixe azpimarratu gura izan dute, hain zuzen ere.

MONDRAGOETARRAK KULTURIZATZEKO

Antolatzaileen esanetan, jaialdiak duen helburuetako bat honakoa da: "Herrian jende askok rock taldeak sortu gura ditu eta askok punka egin gura du. Baina askotan, iraganean egin zituzten abestiak ez ditugu ezagutzen, eta horiek ezagutzea kultura orokorra da, rock estiloan ibiliz gero, derrigorrez jakin beharrekoak".

Horrez gainera, jaialdira joango direnei 70eko hamarkadako trazan jantzita edo moztortuta joateko gonbidapena egin gura diete antolatzaileek. Are gehiago, horrela joaten direnei salneurri bereziak eskainiko dizkiete 70eko hamarkadako jaialdian.



Argazkian, Maite Barreña, Jon Garai eta Maitena Zubia prentsaurrekoan.

Zinema Gay eta Lesbikoaren Mostra Amaia Udal Antzokian

I.B.

Arrasateko Udaleko Kultura Sailak eta Sexologia Zerbitzuak esanahi berezia eman diote ekaineko zineklubari. Ekainaren 28a hizpide hartuta, Zinema Gay eta Lesbikoaren Mostra antolatu dute.

Udaleko Kultura Saileko Jon Garaik, Emakume Saileko Maite Barreñak eta Sexologia Zerbitzuko Maitena Zubiak prentsaurrekoa eman zuten joan den martitzenean Arrasateko udaletxean.

Azkenaldian ohikoa da eguenetan Amaia Udal Antzokian egiten den zineklubari gai bat ematea. Horrez gain, ohikoa da urtero-urtero, ekainaren 28tik hurbil, gayen eta lesbianen gaineko film bat eskaintzea. Aurten, ordea, ekintza gehiago antolatu gura izan dituzte. Arrasateko Udaleko hainbat sailek indarrak batu eta hilabete osoko zinekluba gayen eta lesbianen gaineko filmi eskaini diete.

Eman beharreko filmak Arrasateko udaletxean erabaki beharrean, Bartzelonako Altramant Cinema Gay y Lesbic nazioarte-

ko jaialdiaren arduradunekin egon dira. Haiak lagundu diete filmak aukeratzeko.

BARTZELONAN AUKERATUTAKO FILMAK

Udaleko ordezkariak aditzera eman zuten, aukeratutako filmek nazioarteko jaialdian oso sari garrantzitsuak jaso dituzte, eta oso film onak direla baieztatu dute. Betiere, gayen eta lesbianen bizimodu eta ikuspegitik kontatutako istorioak dira.

Guztira, lau film labor eta lau film luze egongo dira ikusgai. Eguenero, hasteko, film labor bat eskainiko dute, eta film laborraren ostean, film luze bat.

Amaia Udal Antzokian ekaineko eguenean emango dituzten film laborrak hauek izango dira: *Back Room*, *Pantalones*, *Paréntesis* eta *Un matrimonio bien avenida*. Denak Espainiako Estatuan eginak. Bestalde, film luzei dagokionez, Suediako *Fucking Amal*, Erresuma Batuko *Get Real* eta *Sister, my sister* eta AEBetako *Trick* egongo dira ikusgai.

Arrasateko Udalak antolatu dituen ekintza horiekin sexualitate aniztasuna eta askatasuna aldarrikatu gura du.

Txatxiartistek 'Eguzkiaren Bila' antzeztuko dute bihar

Txatxiartistak antzerki taldeak *Eguzkiaren bila* lana antzeztuko du bihar, zapatua, Amaia Udal Antzokian. Orain arte, Gazteluondoko aretoan, Bilboko Kafe Antzokian eta Arronan jokatu dute lan hori, eta ikusleak oso pozik geratu dira.

Txatxiartistak pozik eta apurtxo bat urduri daude euren herrian, Arrasaten, antzeztu behar dutelako. Izan ere, Arrasaten lan hori egin duten aldi bakarra Gazteluondoko aretoan izan zen, eta areto bera da entseguak egiteko erabiltzen dutena. Horregatik, lasaiago antzeztu zuten han.

Eguzkiaren bila antzezlanean hemeretzi gaztetxok hartzen dute

parte, eta oso gazteak diren arren, jendaurrean beste antzeztan batzuk antzeztu izan dituzte. Horra hor, esate baterako, *Potiet* eta *Urkuluetako bainuetxeak* izeneko lanak.

EGUZKIA EZKUTATU ZENEKOA

Eguzkiaren bila antzeztan, aurreko lanek ez bezala, dantza, musika, antzerkia eta koreografia batzen ditu; horrek guztiak bizitasun handiagoa ematen dio antzeztanari.

Lan horretan eguzkia mundu osotik desagertu egingo da eta neska bat eguzkiaren bila joango da. Neska horrek bidean *Berepeletar* familia osoa ezagutuko du, baita guk ere.

Lurraren Taupadak perkusioa eta kultura askotariko erritmoak batuko ditu

IKER BARANDIARAN

Datorren eguenetik zapatu iluntzera arte, oso jaialdi berezia egingo dute Arrasaten. Izan ere, Producciones Nómadas taldeak jaialdi erraldoi bi, antzerki emanaldi bat, hainbat ikastaro eta berbaldi bat antolatu ditu, Lurraren Taupada izenburupean.

Kultura askotariko jaialdi hori antolatzen dabilen Iñaki Bruñak azpimarratu duenez, asteburu osoko jaialdi hori Gazteluondon perkusioaren gainean egin dituzten ikastaroen jarraipen modura antolatu dute.

Jaialdi horren bitartez, "musika tradizionala, emozionala eta espirituala aldarrikatu" eta, bide batez, ezagutzera eman gura dute. Hainbat kulturatako taldeak ekarri dituzte, "elkarren arteko komunikazioa areago dadin eta elkertasuna, integratzea eta tolerantzia susper ditzagun".

Eguenean, 19:00etan, Udaleko osoko bilkura aretoan bizi izateko moduen gaineko berbaldia izango da; 22:00etan, Iamai kafeategian LaTirili antzerki taldeak *Temptiélana* antzeztuko du eta 23:00etatik aurrera, berriz, Ver-

tice diskotekan *Perku-jam* jaia egingo dute.

ASTEBURUAN, JAIALDIAK

Egubakoitzean, 20:00etan, Bilboko Txatunga Bembe taldekoek kalejira egingo dute; horren ondoren, 21:15ean, talde berberak jaialdia zabalduko du Monterronen. Arrasate Musikaleko Big Band taldeak ere joko du; jarraian, Gasteizen bizi diren magrebtar batzuek osatutako El Boghaz taldea izango da; eta 01:00ak aldera, Tribu Chaman taldearekin, egubakoitzeko emanaldiak bukatuko dira.

Zapatuan, euskal folklore talde bat kaleetan zehar ibiliko da, eta 20:15ean, kontzertua emango du Monterronen. Enrike Zelaia akordeoilaria ere taula gainera igoko da. Haren ostean, Kordobako Mercedes Garrote kantariak emanaldia egingo du. Bukatzeko, Iruñeko Sawana'ko taldeak erritmo afrikarrak eta dantza uztartuko ditu. Kontzertuak zortzi euro kostatuko dira txarteldegian eta aurrez erosita, berriz, sei euro. Asteburuan, batukada eta Afrikako dantzak ikasteko aukera ere egingo da. Dei ezazue Gazte Bulegora.



IKER BARANDIARAN



Ospatu gurekin

10. urtebetetzea

ibai-arte

Maiatzeko zozketaren irabazlea Kontxi San Miguel izan da. Zorionak!

Parte hartu **600 €** hileroko zozketan

Oraindik ekaineko eta uztaileko sariak falta dira.

Sari-txartelak Ibai-arte komertziotan aurkituko dituzue



E, TXO!

GUREGAIK/ TXATXILIPURDIKO AUZOLANDEGIK

**TXATXILIPURDIKO
UDALEKUAK, IA BETETA**

Txatxilipurdi aisialdi elkarteak arduradunek aurtengo udalekuak ia beteta daudela jakinarazi digute. Hain zuzen ere, uztailean udalekuetara joan gura izanez gero, aukera bakarra dago: uztailean bertan Asturiasera joateko lau lagunendako lekua bakarrik gelditzen da. Dena dela, izena emateko epea ekainaren 18an bukatuko da. Haur, gaztetxo eta guraso, interesa izanez gero, hobe lehenbailehen Txatxilipurdira joan eta matrikula egiten baduzue.

**GAZTEK ETA AISIALDIA
ARGAZKI LEHIAKETA**

Arrasateko Udaleko Gazte Sailak Gazteak eta Aisialdia Argazki Lehiaketaren XIII. aldian antolatuta berri du. Lehiaketaren helburu nagusia gazteen artean argazki zaletasuna sustatzea da. Parte hartzaileendako, kategoria bi bereiztu dituzte: bata, Debagoieneko 13 eta 17 urte bitarteko gazteendako, taldeka zein banaka; eta bestea, 18 eta 35 urte bitarteko edozeinendako.

Parte hartzaileek kontuan hartu beharko duten gaia *Gazteak eta aisialdia* izango da, eta argazkiak koloretan zein zuri-beltzean aurkeztu ahal izango dituzte. Formatuari dagokionez, Debagoieneko gazteen kategorian librea izango da; 18 eta 35 urte bitarteko kasuan, ordea, gutxienez, 18 x 24 cm izan beharko ditu eta, gehienez, 30 x 40 cm. Parte hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, eta argazkiak aurkezteko epea urriaren 15ean amaituko da. Urriaren 22tik 31ra bitartean, erakusketa egingo dute.

**Auzolandegietan
Garaioako aterpetxea
konponduko dute**

IKER BARANDIARAN

Txatxilipurdi elkarteak Auzolandegiak antolatu ditu ekainaren bukaerarako eta uztailearen hasierarako. Auzolandegiak tripa-truk izango dira. Garaioako aterpetxea konponduko dute.

Txatxilipurdi aisialdi elkarteak Auzolandegiak antolatu ditu ekainaren 29an, uztailearen 6an eta uztailearen 13an. Auzolandegi horiek goizez izango dira eta lan egin ondoren, Garaioako aterpetxean bertan bazkaria eskainiko diete lan egitera hurreratzaren diren boluntario guztiei. Auzolandegi horien helburua da Txatxilipurdik eta AEDk kudeatzen duten Garaioako aterpetxea kon-

*Garaioako aterpetxea
goitik behera
konpondu gura dute
eta horretarako
deialdia egin dute*

pontzea. Garaioako aterpetxea Maturana herriko Otaza auzoan dago.

ERA GUZTIETAKO LANAK

Txatxilipurdikoen esanetan, Auzolandegietara joateko hamazortzi urtetik gorako adina izatea komeni da. Izan ere, Garaioako



Txatxilipurdi eta AED elkarteak askotan egon izan dira Garaioako aterpetxean.

aterpetxean egin beharreko lanak ez dira edonolakoak. Besteak beste, belarra moztu, fruta-arbolak

berreskuratu, etxea margotu, teilatua konpondu, apalak egin... eta antzekoak dituzte egiteko.

LOTSABARIK/ Jon Nevado

“Egungo neskek asko eskatzen dute”

I.B.

Jon Nevado ez dabil oso fin ikasketetan, eta egun duen ardura handietako bat Jonek berak eta lagunak sortu gura duten musika taldea aurrera eramatea da. Instrumentua izango da hurrengo pausoa.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Gauza asko: adibidez, munduko errege, suhiltzaile eta albaitari; animaliak oso gustuko ditut. Baina ikasketak ez daramatzat ondo eta beste zerbait egin beharko dut.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Ezkonduta, ume birekin eta Mondragoen bizi izaten. Agian, burusoila izango naiz.

• Zein da, zure ustez, adin ideala?

16 eta 18 urte artekoa, edozer egin daitekeelako.

• Bizitzan, zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei eta musika taldeari. Talde bat sortu guran gabilta.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Musika taldea aurrera ateratzeak.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Gauza askok; esaterako, ezezagunei berba egin beharrak lotsatzen nau.

• Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?

rreren bat?

Lagunek esaten didate tontakeriak egiten ditudala eta alaitu egiten ditudala. Bestalde, apur bat harroa naizela esaten dute.

• Arrasaten ligatzen da?

Nik orain neskalaguna daukat, baina orokorrean egungo Arrasateko neskek asko eskatzen dute, ez dira edozerekin konformatzen: gu gihartsu egotea gura dute, eta abar.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Eskuak, handiak ditudalako.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Lehenengo, polita den eta gorputz ona duen, horri begiratzen diot; eta gero, ea neska jatorra den.



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBHko bigarren maila • ZALETASUNAK: Musika entzun eta lagunekin egotea
LIBURU BAT: Ez dut libururik irakurtzen • FILM BAT: 'La naranja mecánica' • MUSIKA TALDEA: Des-Kontrol • KIROL TALDEA: Alaves

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebendun hizkiak

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

BEHEKO ESTETIKA ZENTRUTIK

Nieves Pardo

LIRAIN ESTETIKA ZENTRUKUE

XABIER URZELAI

Nieves Mondraguen jaixo zan oin dala hogeitza zortzi urte. Estetikie eta Pelukerixie ikasi euen Nievesek, eta estetizista lanetan dabil Lirain Estetika Zentruen. Titulue oin dala hamar urte eskuratu euen, baiñe lehenago be ibilli zan horretan lanien, ahiztiari lagunketan, hain justu be.

Amets bat?

Loterixie toketie.

Eta amets txar bat?

Semiari edo familixakoren bati zerbañt txarra pasetie.

Egin dozun azken biañje?

Zamoran egon gitzen maiañzien, bautizue euki geuen-eta.

Txartel horixe, zeññei?

Ez jat iñor be okurriduten.

Eta gorrixie?

Amatasun-bajien gainñien legiek egitten dittuenei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Forrest Gump / El Clan del Oso
Cavernario / Mike Olfield.

Drogak legalizauko zittukie?

Baletz esango neuke, legez kanpoko gauzek gehixago erakarten daue-eta. Legalizau bai, baiñe infor-
maziño asko emunde.

Eta prostituziñue?

Prostituiduten dana ados bada-
go, bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Diskotekak noizien behin jue-
teko gustetan jat, baiñe gurago dot
txikiteue.

Ze gustetan jatzu Mondra-
guetik?

Ez neuke esango herri politte
danik, baiñe pozik bizi naz hamen.
Neure inguruko jentie asko mai-
tte dot eta gustora bizi naz Mon-
draguen.

Alkate izengo bazitze, ze
hobetuko zeunke?

Umiendako gauza gehixago
jarriko neuke. Aretxabaletan
hamen baiño ekintza gehixago egi-
tten daue gaztetxuendako; hori
hobetuko neuke.

Eta lehendakari izengo bazi-



*“Jentie urte osuen
ziher etorten da
hona, nahiz eta oin
lan gehixago
daukogun”*

tze?

Etxebizitzen arazue konpon-
duko neuke.

Bizio bat?

Erretie.

Mendi bat?

Udalatxera bakarrik igo dot.

Bizi izetera hiri batera jue-
tekoñan, nora?

Gasteizera.

Ezagutu dozun pertsona inte-
resante bat?

Aiztie eta neure senarra.

Uda datorrenez, flakatu zara
zerbañt?

Gizendu egin biherko nitzake,
argal-argal nago-eta.

Igerketan da uda gertu
daguela?

*“Makiña elektrikuek
emaitza onak emuten
dittu. Laserrak be
bai, baiñe ondiokan
barrixe da”*

Bai, lan asko daukogu, baiñe
lehen, gehixago igerketan zan. Oin,
jentie urte osuen ziher etorten da.

‘Makillaje iraunkorra’ nagi-
xendako da?

Izen leike. (Barriek). Jente
askok ezpanak konponketako ibil-
tten dau, baina erosotasunagaittik
be izen leike.

Manikurie badakigu ze dan,
baiñe ze da pedikurie?

Manikurien bardiñe, baiñe
hanketarako.

Depiletako, argizarixe, lase-
rra ala makiña elektrikue?

Makiña elektrikue ez da bari-
xe, eta badakigu zelako emaitza
onak emuten dittuen. Laserra be
ona da, baiñe barrixe ondiokan.

NIREBIDAIAHURA / Diego García

Caracasera / 2002ko urtarrilean eta otsailean

Diegok hainbat bidaia egin ditu, baina tarte hone-
tan kontatzeko Venezuelara eta Australiara
egindako bidaien artean aukeratu du. Bidaia bie-
tan ikasketak zituen helburu. Australian hila-
bete egin zuen eta Venezuelan, Caracasen, hilabete bi egin
berri ditu. Hego Amerikara egindako bidaiaz gauza asko
ditu kontatzeko, eta bidaia hori aukeratu du.

Diego maisutzako prakti-
kak egiteko asmoz abiatu zen
Venezuelarantz. Praktikak
Caracasen egin behar zituen,
Fè y Alegriako eskolan, eta
eskolara iritsitakoan zuden-
dariak baino ez zekien Diego
joatekoa zela. Bat-bateko batza-
rra egin, eta bere proiektua
egiteko denbora laburra zego-
ela-eta, ingelesezko eskolak
ematen jarri zuten Diego.



*“Praktika
batzuk egitera
joan nintzen
eta eskolak
ematen
amaitu nuen”*

Guztira, zazpi klase zituen
Diegok. “Hemengo klaseetan
hamabost edo hogeik ikaskide
izaten dira. Han, ordea, berro-
gei ikaskideko klaseak izaten
ziren; guztira, berrehun ikas-
le baino gehiago izan nituen”.
Ingelesezko eskolak ez dituzte
ingelesez ematen, gaztelaniaz
baizik. Hori dela eta, proiektu
berezi bezala ingeles hutseko
eskolak emateko eskaera egin
zuen. Baiezkoa eman zioten, baina ez zegoen lekurik esko-
la horiek emateko. Denborak aurrera egin zuen, eta lekua
eta eskola horietarako ikasleak topatu zituenerako hila-
bete biak joanak ziren.

Hilabete biotan, eskolak emateaz gain, beste hainbat
gauza egiteko aprobetxatu zuen Diegok. Arratsaldeak libre
izaten zituen, eta Caracas eta inguruak ondo ezagutzeko
aukera izan zuen arrasatearrak. Egoera sozio-politikoak
asko harritu zuen Diego. Hango bizi mailak, ohiturek, bizi-
tzaren ikuspegiak eta, jakina, politikak. “Han politikaz
berba egitea nahiko arriskutsua da; lagun batek zera esan
zidan behin: *Badakizu zenbat balio duen venezuelar baten
biziak? 500 bolivar, bala batek balio duena*”. Datorren aste-
an, Diegoren eskutik, Venezuelako egoera sozio-politikoak
hobeto ezagutzeko aukera izango dugu.

XABIER URZELAI



Caracasoko Panteoi Nazionala.

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

ZAHARREN ETXETIK



HHIko eskoletan oso gustura ibiltzen dira ikasleak. Haiek ikustea besterik ez dago.

IKER BARANDIARAN

Inoiz ez da berandu gauza gehiago ikasteko, borondatea baldin badago

IKER BARANDIARAN

Honelaxe dio esaera batek: *Inoiz ez da berandu ikasten hasteko*. Eta beste esaera batek honako hau dio: *Egunero ikasten dugu zerbait*; eta beste batek, berriz, *Ikasteak ez du lekurik kentzen*.

Esaera horiek kontuan hartuta edo bestela, jende nagusi asko, gaztetan ikasi ez duena edo gaztetan ikasi duena baina ez duena gogoratzen berriro ikasteko asmoz, ikasgeletara bueltatzen da berriro. Adibide esanguratsuen Helduen Heziketa Iraunkorra da, EPA moduan ezagunagoa dena.

Egunotan, HHIk Arrasaten dituen ikasgeletan berrogei erretiratu dabilta hainbat ikasketa mota egiten. Horietako batzuk irakurketa eta idazkera ikasten edo hobetzen dabilta. Beste batzuk, ordea, kultura orokorreko eskolak jasotzen ari dira.

Helduen Heziketa Iraunkorra martxan jarri zutenetik hona, matrikulatuta dauden erretira-

tuen kopurua ez da askorik aldatu. Gutxi gorabehera, finko samarra izan da beti. Hala ere, esan beharra dago HHIko eskolan matrikulatuta dauden erretiratuen gehiengoa emakumeak direla. Horiek dira, hain zuzen ere, lotsa txikien izaten dutenak.

Gu martitzenean egon ginen

Egunerokotik apur bat irten

Helduen Heziketa Iraunkorrek helduei -eta tartean, erretiratuei ere- aukera polita ematen die. Eurei komeni zaie orduan hainbat eskola har ditzakete: irakurketa eta idazkera maila hobetu, kultura orokorra jaso, ingelesa ikasi... Horrez gainera, eguneroko kontuak alde batera utzi eta lagunak egiten dituzte. Euredako asko balio du horrek.

Arrasateko HHIko eskolan eta han harrapatu genituen Aurora, Griselda, Rosa, Ana eta beste lagun batzuk euren irakurketa eta idazkera maila hobetzen.

LOTSA KENDU ETA ESKOLARA JOAN

Eskolak hartzen harrapatu genituen lagun batzuek onartu zuten HHIko eskolan izena eman aurretik lotsa zutela eta izena ematea kostatu egin zitzaizela. Beste lagun batzuek, ordea, argi zeukaten eskolak hartzea interesgarria izango zela, eta berdin zitzaizaien beste guztia. Dena dela, bai batzuek baita besteek ere gainerako erretiratu guztiei gonbidapena egiten diete, gauza gehiago ikasteko asmoz, matrikulatzera anima daitezten.

Aurora, Griselda, Rosa, Ana eta euren beste lagunak egunero joaten dira HHIra, arratsaldeetan, eta oso gustura dabilta. Egun batetik bestera gehiago ikasten ari dira eta horrek asko pozten ditu. Are gehiago, eskolan bertan lagun handiak egiten dituzte eta horrek ere asko lagunten du.

LABUR

San Juan jaietan Alkatetzak 80 urtetik gorakoei omenaldia egingo die

Aurreko urteetan moduan, Arrasateko Alkatetzak San Juan jaietan Arrasateko 80 urtetik gorako guztiei omenaldia egingo die. Omenaldi horretan parte hartu izanez gero, interesatuok udal-letxeko idazkaritzan eman beharko dute izena ekainaren 14a (egubakoitza) baino lehenago. Izena emateko behar-beharrezkoa izango da Nortasun Agiria aurkeztea.

Abaroa zaharren elkarteak Kantabriara txangoa antolatu du ekainaren 18an

Abaroa zaharren elkarteak Kantabriara txangoa antolatu du ekainaren 18an (martitzena). Bi autobus irtengo dira eta bidean Santoñako kontserba-industria bisitatuko dute. Horrez gain, Islako Isla Bella jatetxean bazkalduko dute eta bueltan Castro Urdialesen osteratxoa egingo dute. Interesatuok datorren martitzena, ekainaren 11, baino lehen eman beharko dute izena, 17 euroren truke.

ZAHARREN AHOTIK

Jose Riviere

ABAROA ELKARTEKO IDAZKARIA


Jose Riviere Terrasan, Bartzelonan, jaio zen, baina oso gazte zela etorri zen Arrasatera, eta dagoeneko oso ezaguna da herrian.

Terrasan jaio zinen, baina mondragoetartzat daukazu zure burua, ezta?

Bai, 1937an jaio nintzen, Terrasan, gerraren eraginagatik. Aurrez, gurasoak Frantzia ere izan ziren, eta han ere jaio nintekeen. Riviere abizen frantsesa bada ere, aitona Arrasatekoa zen. Hiru anai-arreba gara eta neu nagusiena naiz. Bilbon bataiatu ninduten. Jarraian, Arrasatera, *Juan Haundi*-ren etxera ekarri ninduten.

Non ikasi zenuen?

Lehenengo, San Frantzisko moja mertzedariekin ikasi nuen. Gero, Gazteluondoko Eskola Nazionalan, eta handik Eskola Profesionalera pasatu nintzen. Orduan, Biteriko Eskolan zegoen, baina ikasturte erdian Zentro Asistentzialera eraman gintuzten. Eskola Profesionalan Ofizialtza eta Maestria ikasi



nituen, baita Peritu ikasketen ikasturte bat ere.


Ikasketak eta lana uzartu zenituen?

Bai. Elman elektrikari ibili nintzen. Elektrikari lanaz gainera, segurtasuna eta higie-nea ere zaindu nituen. Elmatik Ederlanera joan nintzen, eta ondoren, Huelvan Huguiz eneko enpresa zabaldu genuen, baina krisiaren eraginez itxi egin behar izan genuen. Bueltan, Escatun egiten nuen lan, baina jendea botatzen hasi ziren eta Condesara joan nintzen, aurre-erretiratu nintzen arte. Orduetik hona, Abaroako batzarrean nabil.



ALDEDI
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



EGUZKIGRAF

inprimategia

ARETXABAETA

Industrialdea E-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99



ARRASATE
Josu Aginalde Errasti
Ekainaren 15ean, 4 urte.
Zorionak, txapeladun! Etxeko guztion partetik.



ARRASATE
Nerea Pozo
Ekainaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak! Familia-koak.



ARRASATE
Eider Pozo
Maiatzaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak! Familia-koak.



ARRASATE
Jose Antonio Muruamendiaraz
Ekainaren 12an, 62 urte.
Zorionak! Lagunak.



ARRASATE
Jon Arana
Ekainaren 8an, 10 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Naia Figuroa
Ekainaren 10ean, urtebete.
Zorionak! Gurasoak, aita-ta-amama eta izeba-izeko.



ARRASATE
Irune Zumalde
Ekainaren 11n, 21 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Maria Heriz
Ekainaren 9an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak eta Isabel.



ARRASATE
Leire Balentziaga
Ekainaren 11n, 6 urte.
Zorionak! Etxeko guztion partetik.



ARRASATE
Ane Errasti
Ekainaren 8an, 10 urte.
Zorionak! Ainhoa, Arantza eta Eusebio.



ARRASATE
Aritz Kortabarria
Ekainaren 9an, 20 urte.
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Nerea Arizmendiarieta
Ekainaren 9an, 16 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Eusebio Errasti
Ekainaren 12an, urtebetetzea. Zorionak! Ainhoa, Ane eta Arantza.



ARRASATE
Maria Jesus Velasco
Ekainaren 3an, 38 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Cris
Ekainaren 4an, 21 urte.
Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Maddi Elizburu
Ekainaren 7an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera argazki batekin eta utzi gure esku! Otorora lizentziaduna, 31.

Adi!

Hurrengo zenbakian, **ekainaren 8tik 15era** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak martitzenera arte jasoko ditugu **ARRASATE PRESSko** egoitzan.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko ekainaren 7a / 30. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Aramaioko ganaduen nondik norakoak arautu ditu Udalak

UBANE MADERA

Joan den asteko Udaleko osoko bilkuran herriko ganadu aprobetxamendua arautzeko ordenantza proposatu zitzaion Udalbatzarrari. Eta Udalbatzarrak onespena eman zion.

Araudi horren arabera, Aramaion ganadu aprobetxamendurako epea urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31ra artekoa izango da, urte osokoa, hortaz. Ganaduzaleek urtarriletik martxoaren 1era arteko epea izango dute eskaerak egiteko. Betiere, Aramaion erroldatuta badaude eta etxebizitzaren bat, gutxienez, sei hilabetez zabalik badute. Era berean, bazkalekua behar duen ganadua legeak eskatutako baldintza guztiak bete behar ditu (erroldatuta egon behar dira eta osasun eta kontrol baldintzak bete behar dituzte).

Horrez gain, adibidez, Udalak hektarea bakoitzean egon ahal den animalia kopurua ere zehaztu du: adibidez, urte bi baino



Ganaduzaleek urtarriletik martxoaren 1era arte izango dute eskaerak egiteko.

AMAGOIA LASAGABASTER

gehiago duen zezen, behi edo bestelako bana, sei hilabetez bi urterako bina (gutxi gorabehera), eta ardi edo ahuntzak sei zazpi-

na. Bestalde, ordenantzaren arabera, debekatuta dago, esate baterako, zuhaitzak babesteko hesitutako gunean ganadua sartzea.



Hondatutako kulunkak kendu ditu

Bañera parkean zeuden hondatutako kulunkak kendu egin ditu Udalak. Orain, eta Andres Osinagak Zerbitzu Saileko buruak adierazi digunez, Gasteizko Hezkuntza Sailari eskatutako dirulaguntzaren erantzunaren zain daude. Izan ere, Bañeran gasifikazio lanak egin behar direla aprobetxatuta, kulunka berriak ipintzeko ere aprobetxatu gura du Udalak. (U.M.)

HERRITARREN HITZA / Julen Arriolabengoa • Filologoa

Hizkuntzarekin jolasean: etimologiak

Jolasa gauza ona da, osasungarria, beharrezkoa bizitzan. Hizkuntza, berriz, gizakiak asmatu duen tresnarik ederrena da, zalantzarik gabe. Hizkuntza guztiak aberastasunez beteak ditugu, ezusteko ugari dituzte, eta euren baitan herrien izaera, pentsamoldea eta mundua ikusteko modua aurki dezakegu fosilizaturik.

Gaurkoan jolasa eta hizkuntza uztartu nahi nituzke eta hizkuntzarekin egin izan den eta egiten den jolas zabalduenetako bat proposatu: etimologiaren jolasa. Nor ez da noizbait bere abizenaren esanahiaz pentsatzen jarri? "Zer esan nahi ote du Larrañagak? Larrain ugari den tokia, akaso? Eta Okiñenak? Okinaren etxea, jakina".

Nik ere sarritan ekin diet horrelakoei. Gogoan dut eskolaumeak ginela sarritan Aramaion oso kutuna dugun mendi batera egiten genuela txangoa, batzuetan Don Prudentziorekin, Orixold mendi taldearekin bestetan. Mendi horri Tella-mendi generitzon, eta nahiko etsita itzultzen nintzen etxera, han ez baitzen teilarik inon ikusten. Baina luze gabe esan ziguten egiazko izena Belamendi zela. Eta orduan bai, orduan aurkitu genion zentzu etimologikoa izenari: begirada altxatu eta han



"Talaimeidi eta Tellamendi doinuz oso hurbil ditugu"

ikusi genituen tontorraren inguruan jiraka hamarnaka belabeltz. Hala ere, ez ninduen txorien azalpenak gehiegi konbentzitu. Ohartu nintzen Euskal Herrian ugari zirela Talaimendi izeneko tontorrak, jeneralean tontor horiek herri baten ondoan kokatuak zeudela,

eta bertatik inguruetakoa bista ezin hobea aurki zitekeela. Mendi horietatik ederki zaintzen dira inguruak eta horregatik hartu zuten izen hori, talaia hitzak (arabierako atalaia-tik eratorria) hori esan nahi baitu,

toki altu bat, bijilantzia egiteko erabilia. Talaimendi eta Tellamendi izenak doinuz oso hurbil ditugu eta litekeena da jatorriz hitz bera izatea. Hori gutxi balitz, ohar zaitzete euskaraz badela aditz bat, beilatu, alegia, beila egin, zaindu esan nahi duena. Baliteke, beraz, jatorrizko izena Beilamendi izatea.

Kontuak kontu, argi dago bi izenok ederki datozkiola gure mendiari, handik ederki ikusten baitira Aramaioko bazterrak eta bertarako sarrera bideak.

Hurrengoan ere jarraituko dugu jolasean, txantxetan batzuetan, serioago besteetan. Hona hemen aztertuko ditugun izen batzuk: Becquer, Borbon, Bartzelona... Egizue zeuek ere jolas.

LABUR

Erretiratuaren egoitzarako giltza eskuratzeko

Alaiak erretiratu, alargun eta pentsiodunen elkartearen esku utzi du Udalak kultura etxean dagoen erretiratuaren egoitzaren kudeaketa. Hori dela eta, berez, lokaleko giltza eskuratzeko elkarteko bazkideak izan behar da. Hortaz, Udalak jakinarazi duenez, bazkide ez izan arren giltza eskuratu gura duenak elkarteko batzordekideekin harremanetan jarri eta beharrezko datuak ematearekin nahikoa izango du. Esate baterako, hilean 0,60 euro ordaindu behar ditu eta giltzaren kopia balio duena (1,20 euro) ere ordaindu beharko du.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

BIHAR, TELLAMENDIRA

Joan den astean ekin zioten Tellamendiko gurutzea txukuntzeko lanei. Hain zuzen ere, lanerako elkartu ziren herritarrek zapatuan gurutzea lixatu zuten eta ugerraren kontrako margoa ere eman zioten. Domekan, ugerraren kontrako margoaren bigarren eskualdia eman zioten. Orain, gurutzea margotzea falta da. Hortaz, bihar, zapatua, berriro ere lanera joateko dei egin dute. 08:30ean irtengo dira plazatik.

BIBLIOBUSA

Datorren barikuan, hilaren 14an, etorriko da berriro Bibliobusa Aramaiora. Betiko moduan, 15:45etik 16:45era arte izango da Ibarren; eta handik Oletara joango da, 17:15etik 17:45era arte.

Ekainaren bukaeran etorriko da berriro, hilaren 28an, hain zuzen ere.

RAYO ALDEANO, BIGARREN

Aurtengoan aramaiorrek ezin izan dute Zaldibarko Aretu Futbol Txapelketa irabazi. Azkena You Know taldeak urrezko golean irabazi zien. Edozelan ere, Rayo Aldeanoko Igor Aiastui *Karkas* jokalaria txapelketako jokalaria onenaren saria eman diote. Hortaz, zorionak!

PUNTU GUZTIAK ONARTUTA

Ez ohiko moduan, baina joan den asteko osoko bilkurako puntu guztiak onartu zituzten. Tartean, Eudelen adierazpena, baita Batasunak horren aurrean aurkeztutako alternatiboa ere. Bestalde, torturaren aurkako mozio bat ere onartu zuten bilkuran.

GIZARTEA

Kiroldegia erabiltzeko araudia onartu zuen Udalbatzarrak

Herriko kiroldegiko kantxa erabiltzeko araudia onartu du Udalak. Bost irizpide zehaztu ditu: batetik, Udalak antolatutako kirol ekimen edo saio kulturalak izango dute kantxa erabiltzeko lehentasuna. Gero, herrian federatuta dauden kirol taldeek. Eta, Udalaren eta kirol taldeen artean libre geratzen diren orduak hiru hilean behin zozketatuko dituzte herritarren artean. Zozketa horretan lehentasuna izango dute Aramaion bizi eta errol-datuta daudenek. Asteko ordu bat eskuratu ahal izango dute. Ondoren, Aramaion bizi ez direnak etorriko dira. Hori ere ordubete eskuratu ahal izango dute. Eta, zozketa biak egin eta gero orduen bat libre geratzen bada, berriro ere aramaiorren artean egingo dute zozketa, eta astean bigarren ordua lortu ahal izango dute. Kantxen erabilera garaiz ordaindu beharko da, bestela, emandako orduak galdu egingo dira.



HERRIKO AUZOETAN

GANTZAGA (I)

1406ko dokumentuan ez da aipatzen Gantzaga. Bai, ordea, 1489ko epaiketan. Gantzagako Juan Abad izeneko bat aipatzen da orduko dokumentuetan; Barajuengo jaunaren kontrako lekuko izan zen hura, bestelako elizate batzuetakoekin batera. Edozelan ere, auzoko Elizako Liburuak ez dira 1630. urtera arte hasten. Eta data hori baino lehenagoko oso datu gutxi daude. Adibidez:

— 1547an, parrokiako serorak bere testamentuan agindu zuen, “bere gorpua bere etxeko ortuan ehorts zezatela, Gantzagako San Millan jaunaren elizan”. Eta lau urte geroago eliza bereko beste etxe bat ere aipatzen dute. Bestalde, herritarrek auzoko baserriak behin baino gehiagotan aipatu zituzten.

Auzotarren artean, Amilburutarrak ugari hedatu ziren ibarreen eta askotariko lanbideak izan zituzten: arotzak, harginak, merkatariak, musikariak...

Urdingiotarrak, berriz, hargin moduan agertzen dira. Eta Liazako Martin Barajuengo eliza eraiki zutenen artean ageri da. “Aramaioko ibararren iragana eta oraina”.

Jesus Maria Elejalde

BOTE PRONTOAN/ Haritz Errasti · Azpiko Racing taldearen sortzaileetarikoa bat

“Zaletasun handia dago, jendea asko mugitzen da rallyak egiten diren lekuetara, haiek ikustera”

Aramaioko auzo-alkateak ezagutzen ibili gara atal honetan. Guztien gainbegiratua egin eta gero, datozen aleetan herriko elkarteak ezagutuko ditugu. Azpiko Racing taldearekin ekingo diogu lan horri. Haritz Errastirekin izan gara berbetan horretarako. Haritz Azpiko Racing taldearen sortzaileetarikoa eta kideetarikoa bat da. Hara zer kontatu digun:

Iaz ezagutu genuen Azpiko Racing taldea, rallysprint-a antolatu zenuten-eta; baina noiz sortu zen taldea?

Duela urte bi hasi ginen, rallysprint-a prestatzeko asmoz, lan handia da-eta. Baina urtebete atzeratu zitzaigun. Hortaz, rallysprint-a antolatzeko eratu genuen taldea. **Zenbat lagun batzen zarete taldean?**

Bada, askorik ez. Berez, lau gara, eta lagunek, koadrilakoe, laguntzen digute. Eta, egia esatearren, laurondako egiteko asko dago. Esan behar da, era berean, horrelakoetan lehenengo urtea izaten dela txarrena. Izan ere, lehenengo urtean jendeak ia ez zigun sinisten Aramaion lasterketa bat antolatu behar genuela... Edozelan ere, esan behar da



azkenean lortu genuela egitea eta, gainera, Aramaioko jendea pozik geratu zela, eta ikusteko gogoarekin...

Baina aurten ezin izango duzue berriro egin...

Ez, ahalegindu gara, baina ezin da aurrera atera. Dena dela, beste rallysprint bat antolatzeko gogoz gabiltza; hortaz, datorren urterako seguru antolatuko dugula.

Aramaiok gain, inguruan ere badaude antzeko talde gehiago, Bergara Racing, adibidez; zelan konpontzen zarete ibarreko elkarteekin?

Oso ondo. Antolatzen diren lasterketetan elkarri laguntzen diogu. Izan ere, horrelako lasterketa bat antolatzeko jende pilo behar da lanerako.

Hemen inguruan non egiten dira lasterketak?
Ibarrean gutxi egiten dira,

Gorlan, adibidez. Eta Araban, berriz, uste dut gurea dela bakarrenetarikoa.

Baina zaletasun handia dago, ezta?

Bai. Aramaioko jendea, adibidez, oso gustura geratu zen. Jendea baserriarren landetan ikusten egon zen eta baserriarrek eurek ere esaten zuten: “Hori, urtero egiteko moduan”.

Gainera, kontuan hartuta errepeidea 15:00etatik 20:00ak arte moztuta egon zela, inor ez zen kexatu. Eta bai, zaletasun handia dago. Jendea asko mugitzen da rallyak egiten diren lekuetara, haiek ikustera.

Eta Aramaiok baldintza bereziak ditu horrelako lasterketarako?

Ez. Gure zaletasunak bultzatuta antolatu genuen.

Azpiko Racing: nondik dator kio izena?

Gure presidentearen baserria *Azpiko Etxe* da; taldeari izen bat ipini behar genionez, hori aprobetxatu genuen. Presidente Julen Agirre da, neu diruzaina naiz, Kepa Etxebarria idazkaria da eta Patxi Godoi ere aipatu behar da. **Euskal Herrian gidari asko daude?**

Onak daude bai. Jende gaztea oso indartsu dator.

“Berez, lau lagun gara taldean, eta lagunek, koadrilakoe, laguntzen digute”

“Aramaioko jendea, adibidez, oso gustura geratu zen iazko rallysprint-arekin”

ERRETRATUZAHARRA


Lantegiak militartu zirenekoa

Industria erakusketari azken ukituak ematen ari dira Udaleko langileak. Laster inauguratuko dute. Hori dela eta, guk ere industria esparrura jo dugu eta Cerrajeraren antzinako honako argazki ateratzea erabaki dugu.

36ko gerraren garaikoa da argazkia. Izan ere, 36ko gerra zibila hasteaz bat, Bergarako eta Arrasateko Unión Cerrajeraren lantegien zati bana militartu egin zituzten, armak egiteko. Gure berriemaileak emandako informazioaren arabera, Levefell koronela arduratu zen horretaz eta lantegian lanean zebiltzan talde militartuak egunero hiru txandatan astean zazpi egunez lanean ipini zituen. Artilleriarako 7,5 eta 10,5eko jaurtigaiak egiten zituzten eta 6,5ekoak mortairuendako, baita hegazkinen lehegailuendako egonkorgailu mekanikoak ere...

Lan asko egite horrek makineriari kalte handia eragin zion. Manuel Lasa arduratzen zen mantentze lanez eta ia ezin zituen beharrezko konponketak egin.

1939. urtean amaitu zuten jaurtigai-



luak egiten eta normalizazio produktiboa lortzeko, lantegiak egokitu zituzten. Argazkian ikusten diren transmisio mekanikoak kendu eta haien ordez banakako motorrak ezarri zituzten. Era berean, planifikazio berriaren irizpideen arabera ezarri

zituzten berriro makinak eta instalazioak.

Gerra bukatu zenean, 40ko hamarkada krisi garaia izan zen lantegiendako eta asko kostatu zitzaizen aurrera egitea. Cerrajeraren kasuan, sarrailek bakarrik egiten zituen atalak lortu

zuen normaltasunez bizi irautea, piezak gorde egin zituzten-eta.

Argazkia: Arrasateko Udala


Informazioa: Isabel Aramendia, Erakusketa Industrialeko koordinatzailea, eta Arrasateko Udala.

Urtea: 1937

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Garai baten lantegia, orain etxebizitzak

1905ean sortu zuten Unión Cerrajera lantegia, eta Arrasateko historiaren gainean berba egiterakoan ezinbestekoa da garai bateko herriaren motorra izan zen lantegia aipatzea. Gauzak asko aldatu dira, eta orduko lantegia zegoen tokian etxebizitzak egiten dabilta. Arrasatek herri industrializatua izaten jarraitzen du, baina gaur egun, beste behar batzuk ere badaude.



≈ 1920

Argazki honetan argi eta garbi ikusten da orduko burdinbidea. Gaur egun hotela dagoen eraikina ere nabarmentzen da.



2002

Hotelaren eraikinak berdin jarraitzen du, baina burdinbidea aspaldi desagertu zen. Lehen lantegia zegoen lekuan orain etxebizitzak daude.

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711768

AGR ERREFORMAK S.L.
Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

ZUBIZARRETA LANTEGIAK
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72
- HONORIO IZQUIERDO. Mendia Jauregia. Erdiko kale, 22 ☎ 943 79 72 16
- MARIA GARDOKI LEGORBURU. ☎ 670 52 19 34

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kale, 22-3. eskuma ☎ 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiomasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5. ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGÓA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4. ☎ 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kale 54, behea eskuma ☎ 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22



Ile apaindegira baino lehenago heltzen gara.
Ibarreko BERRIAK gertu-gertutik egunero.

BERRIAK

- Astelehenetik egubakoitzera
14:00etan eta 20:00etan
- Errepikapena egunero, 15:30ean eta 21:30ean
- Aurkezleak: **Gorka Etxabe** eta **Maidor Osa**

